

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

**11416** 30/2020 Errege Lege Dekretua, irailaren 29koa, Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurriena.

#### ZIOEN AZALPENA

##### I

COVID-19ak ekarritako osasun-larrialdiko egoerak enpresetan eta enpleguan izan dituen ondorio txarrak iraunkorrek direnez, eutsi egin behar zaie martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak (COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrienak) 22. eta 23. artikuluetan aurreikusten dituen salbuespenezko neurriei –kontratua etetea eta lanaldia murriztea ezinbesteko kasuetan eta COVID-19ari lotutako arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolamendukoak eta ekoizpenekoak tarteko–, bai eta horiei lotutako langabezia-babesaren eta kotizazioen arloko ezohiko neurriei ere.

Kontuan hartu behar da pandemiak nolako bilakaera izan lezakeen, jarduerak zer erritmotan berreskuratuko duen erabateko normaltasuna, ekoizpen-ehunak zenbateko kaltea izan ote duen eta zer hazkunde-ahalmen dagoen.

COVID-19ak ekarritako osasun-larrialdiari aurre egiteko konfinamendu-neurrien eta murrizketen ondorioz, krisi honen hasieratik neurriak hartu dira lan-arloan, eta horri esker enplegua ez da BPGd-aren jaitziera ikusita uste izatekoa zen bezainbeste amildu, kontuan hartzen bada lehenagoko krisialdietan bi zifra horien artean agertu izan den lotura.

COVID-19a dela-eta onartutako arau guztien zutabe edo ardatz nagusia barne-malgutasuneko neurriak dira, eta arau horiek helburu hauek izan dituzte eta dituzte: enplegua egonkortzea, lanpostuak eta enpresa-ehunaren ekoizpen-ahalmena ez galtzea, eta beharrezkoak diren mekanismoak malgutzera, alferrikako zama erantsiak saihestuz. Gainera, agintari eskudunek behar diren prebentzio-neurriak eta erabakiak –batez ere, osasun-arlokoak– hartzen badituzte, hori guztia egokitu egin behar da prebentzio-neurri eta erabaki horiei erantzuteko behar den gaitasunera.

Helburu horixe azaldu zuen eragile sozialen eta Gobernuaren artean 2020ko maiatzaren 8an lortutako lehenengo Enpleguaren Aldeko Gizarte Akordioak, Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurrien maiatzaren 12ko 18/2020 Errege Lege Dekretu bihurtu zenak: enpresei atzera egiteko eta hibernatzeko egoeratik pixkanaka eta mailaka suspertzen laguntzea, sektoreka eta lurraldeka, baina aldi berean bide ematea, gure lan-arloko ordenamendu juridikoan inoiz ikusi gabeko malgutasun-mekanismo baten bitartez, bizkor eta egoki erantzun ahal izateko moduko egoera bat mantentzeko, hots, atzera itzuli ahal izateko eta jarduera ekonomikoan eta enpleguan ondorio neurrigabeak eta konponezinak saihesteko modukoa.

Hurrengo akordioa beste errege lege-dekretu batean gauzatu zen (24/2020 Errege Lege Dekretua, ekainaren 26koa, Enplegua suspertzeko eta lan autonomia babesteko gizarte-neurriena eta industria-sektorearen lehiakortasunarena), eta hark ere oinarri eta helburu berberak izan zituen.

Errege lege-dekretu hau eragile sozialen eta Gobernuaren arteko Enpleguaren Aldeko III. Gizarte Akordioaren edo III. ASDE akordioaren emaitza da, eta berriro sustatzen ditu neurriak osasun-krisian pandemiaren ondorio sozioekonomikoak leuntzeko eta enplegua babesten jarraitzeko. Eta, gainera, era bateko eta besteko krisi-egoera eta krisi-inguruneetara egokitzeko behar diren babes-mekanismoak eskaintzen ditu; izan ere, jarduera-sektore guztietan ondorioak ez dira berdinak, osasun-arrazoiengatik hartutako erabakiek egoera jakin batzuetan eragin handia izan dezakete, edo kontratua eteteko nahiz lanaldia murrizteko neurriei eusteko bestelako arrazoiak azaltzen dira.

## II

Errege lege-dekretu hau, beraz, enplegua defendatzeko eta enpresen etorkizuneko bideragarritasuna bermatzeko da, horrela zenbait helburu beteko baitira.

Alde batetik, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak (COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrienak) 22. artikuluan aurreikusten dituen salbuespenezko neurrien aplikazioa luzatzea. Neurrien indarraldia 2020ko irailaren 30ean amaitzekoa zen, bai eta arau horren 23. artikuluan ezartzen den prozedura bereziarena ere, baina luzatu beharra dago, neurriok hartzera eraman zuten faktoreek hortxe dirautelako eta osasun-larrialdia oraindik ere ondorio sozioekonomikoak izaten ari delako enpresen jardueran eta lan-kontratuetan.

Beste alde batetik, kontratuak eteteko eta lanaldia murrizteko neurri berriak aurreikustea, agintari eskudunek ezarritako murrizketa- edo geldiarazte-neurrien ondorioz enpresen jardueraren garapenean sortzen diren oztopo eta mugek ekarritakoak.

Beste helburu hau ere badu: egonkortasuna bermatzeko beharrezkotzat jotzen diren enplegua babesteko neurri osagarriak eustea, eta kaleratzeak eta lanpostuen galera saihestea. Neurri horiek honako xedapen hauetan aurreikusten dira: martxoaren 27ko 9/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. eta 5. artikuluetan (9/2020 Errege Lege Dekretua, Lan-arloan neurri osagarriak ezartzen dituen COVID-19aren ondorioak arintzeko), eta martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren seigarren xedapen gehigarrian, Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurrien maiatzaren 12ko 18/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez onartutako idazketa duen horretan.

Bestalde, pandemiak ekarritako krisia bestelako eragina izaten ari da zenbait ekoizpen-sektoretan, COVID-19aren arrisku epidemiologikoekin lotutako faktoreekin zerikusizuzenagoa duten horietan, eta egokiro erantzun behar zaio desberdintasun horri. Multzororretan sartzen diren enpresetako batzuen sektoreetan aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen estaldura-tasa handia dago, eta jarduera lehengoratzeko tasa txikia, Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalako kode jakin batean sailkatuta egoteagatik; beste enpresa batzuk ere, aurreko horien balio-katean daudenez, edo haiekiko mendekotasun ekonomiko nabarmena dutenez beren eragiketa-bolumenagatik edo egiten duten jarduera motagatik, multzo horretan sartzen dira.

Enpresaren kontzeptu horretan egokitzen diren enpresek osasun-krisiaren hasieratik orain arte ez dute lortu erregulazio-espedienteetako langileak portzentaje nabarietan berreskuratzerik (hain zuzen ere, enplegu-erregulazioko espedienteetatik berreskuratutako langileak ehuneko 65 baino gutxiago dira), eta, gainera, sektore espezifikoetakoak dira (erregulazio-espedienteetako pertsonen ehuneko 15 baino gehiago, EJSN jakin batean araubide orokorrean afiliatutako guztietatik).

## III

COVID-19aren pandemia uste zen baino askoz gehiago eta gogorrago irauten ari da, eta pentsatzekoa da zenbait jarduera berriro eteteko beharra ere egon litekeela. Enpresa txiki eta ertainen buru diren langile autonomoen egoera biziki larria da: jarduera eten zuten, Gobernuak pandemia geldiarazteko dekretatutako neurrien ondorioz, eta diru-sarrerarik gabe geratu ziren; beste hainbati, nahiz eta jarduera eten beharrik ez zuten izan edo alarma-egoeraren ondoren berriz ekin dioten, fakturazioa murriztu zaie eskaria jaitsi delako eta COVID-19aren kariak ezarritako mugak direla eta. Gaur-gaurkoz egoera ez zaie funtsean hobetu langile autonomoetako askori.

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez alarma-egoera deklaratu zenez geroztik, Gobernuak gizarte-segurantzaren arloko salbuespenezko neurriak ezarri ditu COVID-19aren krisiaren ondorioek gehien eragiten dieten langile autonomoen alde, baina irailaren 30ean amaituko da ezarritako azken neurrietarako aurreikusitako epea (neurri horiek hauek dira: kotizazioaren salbuespena, ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretuaren 8. artikuluan arautua, eta jarduerari uzteagatik ezohiko prestazioa, errege lege-dekretu beraren 9. artikuluan ezarria). Beraz, neurri gehiago onartu behar dira aurrekoen onura jaso arren COVID-19aren krisiak izandako eragin ekonomikoak jasaten

jarraitzen duten langile autonomoentzat, igarotako denboran ez baitira hobetu ez haien fakturazioa ez haien jardueraren etekinak.

Komenigarritzat jo diren neurri berriak hamahirugarren eta hamalagarren artikuluetan ezartzen dira, bai eta laugarren xedapen gehigarrian ere. Diru-sarrerak bermatzen dizkiete ebazpen administratibo baten indarrez jarduera eten behar izan duten langileei, jarduerari uzteagatiko prestazio arrunta eskuratzeko modurik ez duten beste batzuei, eta, halaber, jarduera murriztu zaien sasoikako langile autonomoei. Horrekin batera, 2021eko urtarrilaren 31ra arte mantentzen da jarduerari uzteagatiko ezohiko prestazioa, ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretuaren 9. artikuluan arautzen dena, 2020ko hirugarren hiruhilekoan prestazio hori jaso duten autonomoentzat, jasotzeko baldintzei eusten badiete laugarren hiruhilekoan ere. Bestalde, prestazio bera eskuratzeko bidea ematen diete autonomoei, baldin eta, jarduera uzteagatiko ezohiko prestazioa jasorik ekainaren 30era arte, ez badute jaso ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretuaren 9. artikuluan araututako prestazioa, eta laugarren hiruhilekoan frogatzen badute artikuluko horrek prestaziorako eskubidea izateko ezartzen dituen baldintzak betetzen dituztela. Kasu horretan ere 2021eko urtarrilaren 31ra arte jaso ahalko da prestazioa.

Azaldutako arrazoiek sobera justifikatzen dute neurriak errege lege-dekretu baten bitartez onartzea. Izan ere, COVID-19ak ekarritako krisi ekonomikoak langile autonomoengan izandako eragina gizarte-segurantzaren alorrean leuntzeko premia larria dela-eta, ezin liteke onartu lege-proiektu baten bidezko tramitazio luze bat. Beraz, betetzen dira Konstituzioaren 86. artikuluko aurreikuspenak.

Gainera, eta orain hartutako neurriak ebaluatzeko helburuarekin, beharrezkotzat jo da Langile autonomoen jarduera suspertzeko Gizarte Segurantzaren arloko laguntza-neurrien jarraipenerako Batzordeari ematea errege lege-dekretu honetan ezartzen diren neurrien jarraipenaren eta ebaluazioaren ardura. Batzorde hori 24/2020 Errege Lege Dekretuaren seigarren xedapen gehigarriaren babesean eratu da (24/2020 Errege Lege Dekretua, ekainaren 26koa, Enplegua suspertzeko eta lan autonomia babesteko gizarte-neurriena eta industria-sektorearen lehiakortasunarena).

#### IV

Errege lege-dekretu honen egiturak hiru titulu ditu, hamalau artikulua, zortzi xedapen gehigarri, xedapen iragankor bakarra eta zazpi azken xedapen. Eranskin bat ere badu.

Enpleguaren Aldeko III. Gizarte Akordioa I. tituluan jasotzen da (hain zuzen ere, bi kapitulutan), bai eta lehenengo hiru xedapen gehigarrietan ere.

I. kapitulua COVID-19ari lotutako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen eta ezohiko neurrien gainekoa da.

1. artikulua automatikoki luzatzen ditu martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluan oinarrituta dauden aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak, indarrean badaude eta aplikatzekoak badira errege lege-dekretu hau indarrean jartzen den egunean.

2. artikulua berariazko aurreikuspenak garatzen ditu jarduerarako oztopoekin edo enpresen jardura normalizatua garatzeko mugekin zuzenean lotuta dauden enplegu-erregulazioko aldi baterako neurri buruz –etetei eta murrizketei buruz–, sektore guztietarako, oztopo eta muga horiek Espainiako edo atzerriko agintariak murrizketarako edo euste sanitariorako ezarritako neurri berriak eragindakoak direnerako, lehenengo kasuan, edo Espainiako agintariak hartutako erabaki eta neurrien ondorio direnerako, bigarrean.

Kotizazioaren arloan bi neurri berri dakartza 2. artikuluko horrek. Biak ere Gizarte Segurantzako kuoten salbuespenak dira, bakoitza portzentaje batekoa.

3. artikulua luzatu egiten du martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 23. artikulua aplikatzeko epea COVID-19arekin lotutako arrazoi ekonomikoetan, teknikoetan, antolamendukoetan edo ekoizpenekoetan oinarrituta dauden eta errege lege-dekretu hau indarrean jarri ostean hasi diren aldi baterako enplegu-erregulazioko prozeduretarako. Neurri horren irismena eta araubide juridikoa ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan ezarritakoak berak dira; berezitasun bakarra, berriz, errege lege-dekretu hau indarrean jarri eta gero amaitzen diren espedienteen luzapena; eta aukera

ematen da espediente horiek luzatzeko horretarako adostasuna agertzen bada kontsulten aldian.

4. artikulua berretsi egiten ditu mozkinen banaketarekin eta zerga-gardentasunaren eskakizunarekin lotutako mugak, jada ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretuaren 5. artikuluan jasoak, eta 1. artikuluan sartutako enpresei aplikatzen dizkie.

Deskribatutako ezohiko neurrien azken osagarri gisa, I. tituluak enpleguari eustearekin lotzen ditu Gizarte Segurantzako kotizazioen arloan aurreikusitako onurak; hala, enpleguari eutsi beharreko epe berri bat ezartzen die kotizazioaren arloko neurrien onura jasotzen duten enpresei. Gainera, indarraldia luzatzen die martxoaren 27ko 9/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. eta 5. artikuluei; lehenengoa enplegua babesteko ezohiko neurriei buruzkoa da, eta bigarrena, aldi baterako kontratuen gehieneko iraupenaren konputua eteteari buruzkoa.

II. kapituluak, berriz, langileen langabeziagatik babeserako ezohiko neurrien multzoa jasotzen du, tartean honako hauek: kanpaina amaierako ezohiko prestazioa, aldizkako kontratu finkoa duten pertsonentzako; enplegu-erregulazioko espedienteetan sarturik egon eta langabezia-prestazioen onuradun ez diren pertsonen kotizazioa; prestazioen bateragarritasuna; eta lanaldi partzialeko zenbait kasutarako konpentsazio ekonomikoa.

Orobat, III. ASDE akordioan lehen, bigarren eta hirugarren xedapen gehigarriak eta xedapen iragankor bakarria sartzen dira.

Lehen xedapen gehigarriak berariazko araubide bat ezartzen die zenbait enpresari Gizarte Segurantzako kotizazioetako onuren arloan; hain zuzen ere, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen estaldura-tasa handia eta jarduera berreskuratzeko tasa txikia dituzten sektoreetako enpresei.

Gainera, zeharka aurrekoen mende ari diren edo haien balio-katean dauden enpresei ere aukera ematen zaie, egoera hori lan-agintaritzari frogatuz gero, kotizazioen arloko onura berak eskuratzeko.

Bigarren xedapen gehigarrian, Laneko Hiruko Jarraipen Batzordea aurreikusten da, zeinak partaide hauek izango baititu: Laneko eta Gizarte Ekonomiako Ministerioa, Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioa, Espainiako Enpresaburuen Elkartearen Konfederazioa (CEOE), Espainiako Enpresa Txiki eta Ertainen Konfederazioa (CEPYME), eta Comisiones Obreras (CCOO) eta Unión General de Trabajadores (UGT) sindikatuak. Beste eginkizun batzuen artean, batzordeak errege lege-dekretu honetako neurriak aztertuko ditu, bai eta enpleguaren eta ekoizpen-ehunaren babeserako etorkizunean har litezkeenak ere.

Hirugarren xedapen gehigarriak ezartzen du, bestalde, arauak aipatzen dituen aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente horietako baten ondorioz kontratua etenda edo lanaldia murriztuta daukaten langileak lehentasunezko kolektibotzat joko direla lan-esparruan enplegurako lanbide-prestakuntza jasotzeko sistemako prestakuntza-ekimenetan parte hartu ahal izateko.

Xedapen iragankor bakarrik beren-beregi luzatzen die iraunaldia ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretuaren 1. xedapen gehigarriaren 2. apartatuarekin bat etorriz baimendutako espedientei.

II. tituluak langile autonomoentzako laguntza-neurriak jorratzen ditu. 13. artikuluan, jarduera uzteagatik ezohiko prestazio berri bat arautzen da. Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoaren antzekoa da, eta martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaraturako alarma-egoerak iraun bitartean aplikatuko da, autonomoei laguntzeko, beren jarduera erabat etetera derrigortzen dituen erabakia hartzen bada. Prestazio hori jarduera ixteko neurria erabaki eta hurrengo egunean hasiko litzateke, eta neurria kentzea erabaki eta hurrengo hilaren azken egunera arte mantenduko litzateke. 13. artikulua, gainera, beren jarduera itxi beharrik ez duten autonomoei ere ematen die prestazio hori eskuratzeko aukera, baldin eta diru-sarrerak gutxitzen bazaizkie eta ezin badute eskuratu Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginean araututako prestazioa, jarduera uzteagatik (urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsi zuen testu bategin hori).

14. artikuluan, jarduera uzteagatiko ezohiko prestazio bat ezartzen da 2020ko ekainetik abendura bitartean lanean jarduten duten sasoikako langileentzat, 24/2020 Errege Lege Dekretuaren 10. artikuluan ezarritako ildoari jarraituz (24/2020 Errege Lege Dekretua, ekainaren 26koa, Enplegua suspertzeko eta lan autonomoa babesteko gizarte-neurriena eta industria-sektorearen lehiakortasunarena).

Laugarren xedapen gehigarriak arautzen du nola Enplegua suspertzeko eta lan autonomoa babesteko gizarte-neurrien eta industria-sektorearen lehiakortasunaren ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretuaren 9. artikulua babesean jada hasitako prestazioak luzatuko diren, eta prestazio horietarako eskubidea urtarilaren 31ra arte luzatzen die langile autonomoei, baldin eta 2020ko laugarren hiruhilekoan prestaziorako baldintzak betetzen badituzte.

Bosgarren xedapen gehigarriak Langile autonomoen jarduera suspertzeko Gizarte Segurantzaren arloko laguntza-neurrien jarraipenerako Batzordeari ematen dio errege lege-dekretu honetan ezartzen diren neurrien jarraipenaren eta ebaluazioaren ardura. Batzorde hori 24/2020 Errege Lege Dekretuaren seigarren xedapen gehigarriaren babesean eratu da (24/2020 Errege Lege Dekretua, ekainaren 26koa, Enplegua suspertzeko eta lan autonomoa babesteko gizarte-neurriena eta industria-sektorearen lehiakortasunarena).

Seigarren eta zazpigarren xedapen gehigarrietan, hurrenez hurren, kalteberatasun ekonomikoko egoera duten zenbait kolektibok gizarte-bonua jasotzeko duten eskubidea eta eskubide horren bidegabeko aplikazioaren ondorioak arautzen dira. Kontsumitzaile kalteberaren beste kategoria batzuk sortzen dira, argindarraren gizarte-bonua eta argindar-hornidura ez eteteko babes berezia jasotzeko dagokionez: kideren bat langabezia duten familia-unitateak, kideren bat aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente (ABEE) batean dutenak, zainketak direla-eta lanaldia murriztu zaion eta enpresaburua den kide bat dutenak, eta diru-sarreraren galera nabarmena dakarren antzeko egoera batean dagoen kide bat dutenak; hor sartzeko, familia-unitatearen guztizko diru-sarrerak atalase jakin batzuen azpitik geratu behar dute. Modalitate berri horren babesean gizarte-bonua jaso daitekeen aldia mugatua izango da; 2021eko ekainaren 30era artekoa, hain zuzen. Orduetik aurrera, urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuan arautzen diren gainerako kasuetarako gizarte-bonua eskatu ahalko da.

Zortzigarren xedapen gehigarriak hobari bat ezartzen dio mailegu-, leasing- eta renting-kontratuen nobazioa formalizatu eta inskribatzeak dakartzan notario eta erregistratzaileen arantzel-eskubideen ordainketari; hobaria baliatzeko, 2020ko uztailaren 7ko 26/2020 Errege Lege Dekretuaren 18. artikulutik 23.era bitartekoetan aipatzen den luzamendua aplikatu behar da kontratu horietan. Luzamendu horren aurretik beste batzuk ere ezarri dira alarma-egoeraren hasieratik eta COVID-19aren krisiak jotako enpresen eta autonomoen likidezia-egoera arintzeko. Eta hau haien jarraipena da.

Beste alde batetik, azken xedapenetako lehenak aldatu egiten du 1882ko irailaren 14ko Errege Dekretuaren bidez onartutako Prozedura Kriminalaren Legearen bosgarren xedapen gehigarria. Hauxe da aldaketaren helburua: bizitzeko gutxieneko diru-sarrera deritzon prestazioa emateko orduan aintzat har daitezela dolozko giza hilketak delituengatiko ebazpen judizial irmoak, delituok edozein eratakoak direla ere, baldin eta biktima ikertuaren aurrekoa, ondorengoa, senidea, ezkontidea edo ezkontide ohia bada, edo ezkontzaren antzeko maitasun-lotura izan badu harekin.

Halaber, azken xedapenetako bigarrenak Ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren Legearen testu bategina aldatzea aurreikusten du (irailaren 24ko 1/1993 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori); zehazki, 45.I.B) artikuluko 30. zenbakia aldatzea aurreikusten du: ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren kargatik salbuesten ditu hipoteka-mailegu eta -kredituen eta hipoteka-bermerik gabeko errentamendu, mailegu, leasing eta renting-entzako luzamenduak formalizatzeko eskriturak, baldin eta turismo-sektorearentzako hipoteka-luzamendua edo salgaien garraio publikoaren eta eskatu ahalako autobusezko bidaiari-garraioaren sektorearentzako luzamendua aplikatzeko eskriturak badira.

Azken xedapenetako hirugarrenak aldaketak egiten ditu Gizarte Segurantzako familia-prestazioen araudian, kotizazio gabeko modalitatean, zeina aurreikusita baitago Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginean (urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutakoan).

Azken xedapenetako laugarrenak aldatu egiten du martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretua (gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen COVID-19ari aurre egiteko); hala, 2021eko urtarrilaren 31ra arte luzatzen du beste bizilekurik ez duten familia kaltebetei etxea utzarazteko eta haiek handik botatzeko prozedura; gainera, 2021eko urtarrilaren 31ra arte luzatzen du errentaren luzamendua edo barkamen partziala eskatzeko aukera, errentzailea edukitzailerik handi edo erakunde publiko bat denean, aipatutako errege lege-dekretuan ezarritakoaren arabera; eta, era berean, 2021eko urtarrilaren 31ra arte luzatzen ditu sei hilabeteko ezohiko luzapenari heldu diezaioketen etxebizitza-errentamenduko kontratuak, indarra duen kontratuko modu eta baldintza beretan, baldin eta jabeak, pertsona fisikoa izanik, ez badu jakinarazi etxebizitza beretzat behar duela, Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legeak 9.3 artikuluan ezarritako epeak eta baldintzak betez.

Bestalde, azken xedapenetako bosgarrenak bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren aldaketa aurreikusten du. Zehazki, errege lege-dekretu honen bidez osatu egiten da Urrutiko Lanaren Errege Lege Dekretuak (28/2020 Errege Lege Dekretua, irailaren 22koa, 2020 irailaren 23an argitaratua) hasitako erreforma, ezinbestekotzat jotzen baita bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren kotizazio gabeko prestazioaren aitortze-prozedurak abian jartzeko (prestazio hori maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretuak arautzen du, zeinaren bidez ezartzen baita bizitzeko gutxieneko diru-sarrera). Erreforma horrek bermatzen du zuzenduta geratzen direla arauaren puntu ilunak, segurtasun juridikorik eza eragiten zutenak, bai eta beste puntu batzuk ere, derrigortzen zutenak prestazioen aitortzea ukatu eta babesik gabe uztera berez haiek jaso behar lituzketen pertsonak.

Horrekin batera, testuaren idazketa hobetu egiten da, herritarrek argiago uler dezaten. Horrek mesede egingo du, prestazioa eskuratzeko urratsak azkartu eta izapideak erraztuko baititu.

Beste alde batetik, hirugarren xedapen iragankorraren aldaketa dela medio, zuzendu egiten da COVID-19ak ekarritako osasun-krisiaren ondorioz uneko urtean diru-sarrerak jaitsi zaizkienei edo berehala jaitziko zaizkienei prestazioa emateko beharra, Gobernuak beharrezkoa eta saihetsezina zaigun errealitate bati aurre egitera behartuz, ez bakarrik 2020. urtean, baita 2021. urtean ere. Horrela, aurrea hartzen diogu osasun-krisia baino lehenago kalteberatasun-egoerarik izan ez duten arren krisiaren ostean inoiz usteko ez zuten bezalako egoera larrian aurkitzen diren horiek babesteko premiari.

Horregatik, ezinbestekotzat jotzen da arau honek biltzen dituen aldaketak egitea bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren araudian, helburu izanik prestazio hori aitortzeko prozeduraren bizkortasuna areagotzea, segurtasun juridikoa indartzea eta indarraldiko hilabeteetan atzemandako akatsak zuzentzea. Horrela lortuko da kalteberatasun ekonomikoko egoera duten pertsonak eta bizikidetzak-unitateek ahalik eta lasterren eskuratu ahal izatea prestazioa. Hori ikusita, esan daiteke betetzen dela Espainiako Konstituzioak 86. artikuluan lege-dekretuak onartzeko eskatzen dituen aparteko eta presako beharrezko baldintza.

Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren indarraldian agerian geratu diren beharrezkoak betetzeko eta babes handiagoa bermatzeko, aldatu egiten da Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartua, zenbait artikuluko berridatziz, hain zuzen ere Gizarte Segurantzako familia-prestazioak arautzen dituztenak. Horrela, zuzendu egiten dira maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretuaren bitartez egindako erreformak sortu dituen eragozpenak.

Azken xedapenetako seigarrena eta zazpigarrena, amaitzeko, eskumen-tituluari eta errege lege-dekretua indarrean jartzeari buruzkoak dira, hurrenez hurren.

## V

Espainiako Konstituzioaren 86.1 artikulua aparteko eta presako beharrez dagoen egoerarako xedatzen duen aukerari dagokionez, errege lege-dekretu honen edukia arrazoi objektiboetan, egokitasun politikoan eta aparteko presan oinarritzen da –besteak beste, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiren ondorioz oraindik amaitu ez den salbuespenezko egoera larrian–, eta horrek ezinbesteko egiten du erantzun egokia ematea lan-eremuan planteatzen diren premiei.

Konstituzioaren 86. artikulua araberan, Gobernuak errege lege-dekretuak eman ditzake, «aparteko eta presako beharrez» dagoenean, baldin eta xedapenok ez badute eraginik ez Estatuaren oinarritzko erakundeentzako antolamenduan, ez Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, eginbehar eta askatasunetan, ez eta autonomia-erkidegoen araubidean eta hauteskunde-zuzenbide orokorrean ere.

Errege lege-dekretua, Konstituzioaren araberan, tresna zilegia da, baina, horretarako, Konstituzio Auzitegiak behin eta berriro eskatu bezala (6/1983 epaia, otsailaren 4koa, 5. oinarria; 11/2002 epaia, urtarrilaren 17koa, 4. oinarria; 137/2003 epaia, uztailaren 3koa, 3. oinarria; 189/2005 epaia, uztailaren 7koa, 3. oinarria; 68/2007 epaia, 10. oinarria, eta 137/2011 epaia, 7. oinarria), presako legegintza justifikatzen duen xedea egoera jakin batean laguntzea izan behar da, Gobernuaren helburuen barruan laguntzea betiere, aurreikusten zailak diren arrazoiengatik araudia berehala ematea eskatzen duen egoera batean –esan nahi baita ohiko bidea erabilita edo legeen izapidetze parlamentarioarako presako prozedura erabilita beharko litzatekeena baino epe laburragoan–, eta errege lege-dekretua are tresna zilegiagoa da prozedura hori zehaztea Gobernuaren esku ez dagoenean.

Funtsean, errege lege-dekretu hau onartzeko aparteko eta presako beharrez judizio politikoaren edo egokitasun-judizioaren mendean dago, eta horiek Gobernuari dagozkie (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 61/2018, ekainaren 7koa, 4. oinarri juridikoa; 142/2014, irailaren 11koa, 3 oinarri juridikoa); erabaki horrek, zalantzarik gabe, jarduteko lehentasun politikoak antolatu beharra dakar (Konstituzio Auzitegiaren 2019ko urtarrilaren 30eko epaia, 2208-2019 konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioa), halako eran non erantzun egokia emango baita enpresen jardura ekonomikoa eta ekoizpena berriro bere onera ekartzeko, segurtasun juridikoa bermatzeko eta deskribatutako egoeran kalteberak izan daitezkeen taldeak babesteko; aparteko eta presako ezaugarriek definitzen dituzte horiek.

Azalduko arrazoi guztiek justifikatzen dute, zabal eta arrazoituta, arau hau onartzea (Konstituzio Auzitegiaren 29/1982 epaia, maiatzaren 31koa, 3. oinarri juridikoa; 111/1983 epaia, abenduaren 2koa, 5. oinarri juridikoa; 182/1997 epaia, urriaren 20koa, 3. oinarri juridikoa). Bestalde, beharrezkoa den lotura dago azalduko urteko egoeraren eta horri aurre egiteko hartutako neurri zehatzaren artean; beraz, ez da egon adierazitako konstituzio-tresnaren abusuzko erabilerarik edo erabilera arbitrarioak.

Laburbilduta, errege lege-dekretu honetan ezartzen diren neurrietan aparteko eta presako beharrezaren inguruabarrak gertatzen dira, Konstituzioaren 86. artikulua arautzen duen bezala. Gainera, lortu nahi diren helburuak ezin dira lortu lege bat presako prozeduraren bidez izapidetuta.

Halaber, errege lege-dekretu honek ez du eraginik edukiko Estatuaren oinarritzko erakundeentzako antolamenduan, ez Espainiako Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, eginbehar eta askatasunetan, ez eta autonomia-erkidegoen araubidean eta hauteskunde-zuzenbide orokorrean ere.

Errege lege-dekretu hau Konstituzioaren 149. artikulua 1. apartatuko 7., 8., 13., 17. eta 25. zenbakietan xedatutakoaren babesean ematen da. Zenbaki horietan honako gai hauen gaineko eskumenak ematen zaizkie Estatuari, hurrenez hurren: lan-legeria; legeria zibila eta erregistro eta agerkari publikoen antolakuntza; jardura ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa; Gizarte Segurantzaren gaineko oinarritzko legeria eta araubide ekonomikoa; eta energiaren araubidearen oinarriak.

Horrenbestez, Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluko baimena baliatuz, Laneko eta Gizarte Ekonomiako ministroaren eta Inklusio, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako

ministroaren proposamenari jarraikiz, eta Ministro Kontseiluak 2020ko irailaren 29ko bileran gaia eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

## I. TITULUA

### Enpleguaren Aldeko III. Gizarte Akordioa

#### I. KAPITULUA

#### **COVID-19ari lotutako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak eta ezohiko neurriak**

1. artikulua. *COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluan jasotako arrazoietan oinarrituta dauden aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak luzatzea.*

Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluan oinarrituta indarrean dauden aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak automatikoki luzatuko dira, 2021eko urtarrilaren 31ra arte.

2. artikulua. *Jarduerarako oztopo edo mugengatiko aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak.*

1. Sektorea edo jarduera edozein izanda ere, enpresa edo entitate bat bere lantokiren batean jarduera aurrera eraman ezinik geratzen bada Espainiako edo atzerriko agintariak 2020ko urriaren 1etik aurrera ezarritako euste sanitarioko neurri edo murrizketa berriren baten ondorioz, enpresa edo entitate horrek behean azaltzen diren salbuespen-portzentajeak izan ahalko ditu kaltetutako lantokietan, beren jarduerak etenda dauzkaten langileei dagokienez, etenaldien eta kendutako lanaldi-portzentajeen neurrian. Aldez aurretik aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea baimenduko da, Langileen Estatutuaren 47.3 artikuluan oinarrituta, eta espediente horrek arestian aipatutako neurri eragozgarriek adina iraungo du gehienez ere.

a) Itxita egon bitartean sortutako enpresa-ekarpenaren % 100, eta 2021eko urtarrilaren 31ra artekoa, baldin eta enpresak 2020ko otsailaren 29an berrogeita hamar langile edo langileen pareko pertsona baino gutxiago izan baditu Gizarte Segurantzaren alta emanda.

b) Data horretan enpresak berrogeita hamar langile edo gehiago –edo horien pareko berrogeita hamar edo gehiago– bazituen alta emanda, itxita egon bitartean eta 2021eko urtarrilaren 31ra arte sortutako enpresa-ekarpenaren % 90 salbuetsiko da.

Halakoetan, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 273.2 artikuluan aurreikusitako enpresa-ekarpenari aplikatuko zaio salbuespena (testu bategina urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen), bai eta baterako bilketaren kuotei ere.

2. Sektorea edo jarduera edozein izanda ere, enpresa edo entitate bat bere jarduera ohiko eran aurrera eraman ezinik geratzen bada Espainiako agintariak hartutako erabaki edo neurrien ondorioz, enpresa edo entitate horrek behean azaltzen diren salbuespen-portzentajeak izan ahalko ditu kaltetutako lantokietan, errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera. Aldez aurretik, mugen ondoriozko aldi baterako enplegu-



erregulazioko ezinbesteko espedientea baimendu beharko da, Langileen Estatutuaren 47.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

a) Jarduerak etenda dauzkaten enpresako langileei dagokienez eta etenda dauzkaten aldiei eta lanaldi-portzentajeei dagokienez, 2020ko urrian, azaroan eta abenduan eta 2021eko urtarrilean sortutako enpresa-ekarpenaren % 100, % 90, % 85 eta % 80 salbuetsiko da, hurrenez hurren, baldin eta enpresak berrogeita hamar langile baino gutxiago –edo horien pareko berrogeita hamar baino gutxiago– bazituen alta emanda Gizarte Segurantzaren 2020ko otsailaren 29an.

b) Jarduerak etenda dauzkaten enpresako langileei dagokienez eta etenda dauzkaten aldiei eta lanaldi-portzentajeei dagokienez, 2020ko urrian, azaroan eta abenduan eta 2021eko urtarrilean sortutako enpresa-ekarpenaren % 90, % 80, % 75 eta % 70 salbuetsiko da, hurrenez hurren, baldin eta enpresak berrogeita hamar langile edo gehiago –edo horien pareko berrogeita hamar edo gehiago– bazituen alta emanda Gizarte Segurantzaren 2020ko otsailaren 29an.

Halakoetan, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 273.2 artikuluan aurreikusitako enpresa-ekarpenari aplikatuko zaio salbuespena (testu bategina urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen), bai eta baterako bilketaren kuotei ere.

3. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak enpresaren eskariz aplikatuko ditu kotizazioko salbuespenak. Aldez aurretik enpresak langileen izenak eta jarduera etenda edo lanaldia murriztuta dagoen aldia jakinaraziko ditu, eta erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du kotizazio-kontuaren kode bakoitzeko eta sortzapen-hilabete bakoitzeko. Adierazpen horretan azalduko da aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea egin dela, indarrean dirauela eta salbuespen horiek aplikatzeko ezarritako baldintzak betetzen direla. Zehazki, eta kasu guztietan, adierazpenean azalduko da beharrezkoa den ebazpena lortu dela lan-arloko agintaritzatik, berariaz emana nahiz administrazio-isiltasunaren bidezkoa.

Salbuespena aplikatu ahal izateko, erantzukizunpeko adierazpena berari dagokion epealdian sortutako kuoten likidazioa kalkulatzeko eskatu baino lehen aurkeztu beharko da.

Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteari berariaz uko egiten bazaio, salbuespenak amaitu egingo dira, uko-egite horrek ondorioak sortzen dituen egunetik aurrera. Enplegu-erregulazioko espedienteari berariaz uko egite horren berri eman beharko diote enpresek Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari, bai eta espedientearen berriazko edo isilbidezko ebazpena eman duen lan-agintaritzari ere.

Artikulu honetan aipatzen diren erantzukizunpeko adierazpenak eta uko-egiteak aurkezteko, RED sistema erabili beharko da (Gizarte Segurantzaren arloan datuak bitarteko elektronikoekin igortzeko sistema). Martxoaren 26ko ESS/484/2013 Aginduak arautzen du sistema hori.

4. Kuoten salbuespen horiek kontrolatzeko, aski izango da egiaztatzea Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak edo, hala badagokio, Itsasoko Gizarte Institutuak langabezia-prestazioa onartu duela jarduera etenda edo lanaldia murriztuta dagoen aldirako, errege lege-dekretu honen 8. artikuluan 5. apartatuan azaltzen diren berezitasunekin.

Hala ere, langabezia-prestaziorik onartu ez zaien langileen kasuan, aski izango da egiaztatzea langileak alta emanda egotearen pareko egoeran jarraitzen duela; 10. artikuluan aipatzen den egoeran, hain zuzen.

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak eta, hala badagokio, Itsasoko Gizarte Institutuak Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari argibideak emango dizkiote 1. eta 2. apartatuetan azaldutako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteetan dauden langileei aitortutako langabezia-prestazioez. Horretarako, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak behar diren komunikazio-sistemak ezarri ahal izango ditu Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoarekin, langabezia-prestazioak baliatzeko aldiak haren datu-baseekin erkatzeko.

5. Artikulu honetan azaldutako kotizazio-salbuespenek ez dute eraginik izango langileengan; alegia, salbuespena aplikatzen den aldia benetan kotizatutakotzat hartuko da ondorio guztietarako, eta ez da aplikatuko Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 20. artikuluan 1. apartatuan ezarrita dagoena.

6. Artikulu honetan arautzen diren salbuespenak Gizarte Segurantzaren aurrekontuen, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateen, Estatuako Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta Soldadak Bermatzeko Funtzaren kontura izango dira, horietako bakoitzak estaltzen dituen prestazioak finantzatzeko ekarpenei dagokienez.

7. Lehen eta bigarren apartatueta aurreikusitako salbuespenak, jarduerak etenda dauzkaten langileei eta eteteak eragindako aldiei eta lanaldi-portzentajeei dagokienez, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 273.2 artikuluan aurreikusitako enpresa-ekarpenaren ordainketari aplikatuko zaizkio (testu bategina urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen), bai eta baterako bilketaren kuoten ordainketari ere.

3. artikulua. *COVID-19ari lotutako arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolamendukoak eta ekoizpenekoak direla-eta abiarazi diren kontratua eteteko eta lanaldia murrizteko prozedurak.*

1. Errege lege-dekretu hau indarrean jarri ondoren eta 2021eko urtarrilaren 31ra arte COVID-19ari lotutako arrazoi ekonomiko, tekniko, antolamenduko eta ekoizpenekoetan oinarrituta abiarazten diren aldi baterako enplegu-erregulazioko prozedurei martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 23. artikulua aplikatuko zaie, manu honetako berezitasunekin.

2. 1. artikuluan aipatzen diren aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente bat indarrean dagoen bitartean hasi ahal izango da espediente horiek izapidetzen.

3. Baldin eta martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluan aurreikusitako arrazoietan oinarrituta dagoen aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente bat amaitu eta gero abiarazten bada COVID-19ari lotutako arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolamendukoak edo ekoizpenekoak direla-eta egin behar den aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak, espediente berri horren ondorio-datatzat aurreko espedientearen amaiera-data hartuko da.

4. Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen den egunean indarrean dauden aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak enpresaren azken komunikazioan aurreikusitako baldintzetan aplikatzen jarraituko da, han aipatutako epea amaitu arte.

Errege lege-dekretu honen indarraldian amaitzen diren espedienteak, hala ere, luzatu ahal izango dira, apartatu honetan ezarritako baldintzetan, horretarako akordioa lortzen bada kontsulten aldian.

Hasierako espedientearen azken komunikazioa jasotzen duen lan-agintaritzan izapidetu beharko da luzapena, eta urriaren 29ko 1483/2012 Errege Dekretuan ezarritako prozedura beteko da, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 23. artikuluan azaldutako berezitasunekin.

4. artikulua. *Dibidenduen banaketarekin eta gardentasun fiskalarekin lotutako mugak.*

1. Ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretuak (Enplegua suspertzeko eta lan autonomia babesteko gizarte-neurriena eta industria-sektorearen lehiakortasunarena) 5. artikuluan mugak ezartzen ditu zerga-egoitza paradisu fiskaltzat kalifikatutako herrialde edo lurraldeetan duten enpresa eta entitateen aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak izapidetzeko, bai eta aldi baterako enplegu-erregulazioko zenbait neurri heldu dieten enpresa eta sozietateek dibidenduak banatzeko ere. Bada, muga horiek indarrean iraungo dute manu horretan ezarritako eran.

2. Arau honen 2. artikuluan xedatutakoaren babesean baimentzen diren espediente guztiei aplikatuko zaizkie muga horiek, berau indarrean jartzen denetik aurrera.

5. artikulua. *Enplegua babestea.*

1. Enpleguari eusteko konpromiso batzuk arautzen dira martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren seigarren xedapen gehigarrian eta 24/2020 Errege Lege Dekretuaren 6. artikuluan (24/2020 Errege Lege Dekretua, ekainaren 26koa, Enplegua suspertzeko eta lan autonomia babesteko gizarte-neurriena eta industria-sektorearen lehiakortasunarena). Bada, konpromiso horiek indarrean iraungo dute manu horietan ezarritako baldintzetan eta epeetan.

2. Enpresa batek, arau honetan ezarritakoarekin bat etorritz salbuespenak lortzen baditu Gizarte Segurantzako kuotetan, konpromisoa izango du, aipatutako salbuespenezko neurrien aplikazioa dela eta, beste sei hilabetez eusteko enpleguari. Konpromisoaren edukia, betekizunak eta konputua martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren seigarren xedapen gehigarrian ezarri bezala zehaztuko dira.

Hala ere, 1. apartatuan aipatzen diren manuen indarrez enpresak lehendik ere beste konpromisoren bat badu enpleguari eusteko, hura amaitutakoan hasiko da apartatu honetan ezarritako konpromisoaren epea.

6. artikulua. *Martxoaren 27ko 9/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. eta 5. artikuluen indarraldia luzatzea (lege-dekretu horrek lan-arloko neurri osagarriak ezartzen ditu COVID-19aren ondorioak arintzeko).*

Martxoaren 27ko 9/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. eta 5. artikuluek indarrean jarraituko dute 2021eko urtarrilaren 31ra arte.

7. artikulua. *Aparteko orduak eta jardueraren esternalizazio berriak, arau honetan arautzen diren aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak aplikatu bitartean.*

Artikulu honek aipagai dituen aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak aplikatu bitartean ezingo da egin ez aparteko ordurik, ez jardueraren esternalizazio berririk, ez zuzeneko edo zeharkako kontratazio berririk.

Debeku horren salbuespena egin ahalko da kasu honetan: zuzeneko edo zeharkako kontratazioek edo esternalizazioek eragindako lantokian erregulazioan dauden langileek, duten prestakuntza, gaitasuna edo bestelako arrazoi objektibo eta justifikatuak tarteko, ezin badituzte bete kontratazio berrien edo esternalizazioen bitartez egin beharreko eginkizunak. Enpresak jakitun jarri beharko ditu aurretiaz langileen legezko ordezkariak.

Debekatutako ekintza horiek enpresaren arau-haustetzat hartu ahal izango dira Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzak berariaz abiarazitako espedientearen bidez, hala badagokio.

## II. KAPITULUA

### Langileak babesteko ezohiko neurriak

8. artikulua. *Langabezia-babesaren arloko ezohiko neurriak.*

1. Langabezia-babesaren arloan martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 25. artikuluan 1.a), 2. eta 5. apartatuetan aurreikusten diren neurriak 2021eko urtarrilaren 31ra arte aplikatuko zaizkie martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. eta 23. artikuluetan arautzen diren aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteetako langileei, bai eta arau honen 2. artikuluan eta ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretuaren lehen xedapen gehigarrian aipatutako espedienteetakoei ere.

Langabezia-babesaren arloan martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 25.6 artikuluan arautzen diren ezohiko neurriak 2020ko abenduaren 31ra arte aplikatuko dira.

2. 1. artikuluan araututako luzapenek eragiten dieten enpresek eta arau hau indarrean jartzen den egunean martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 23. artikuluan oinarrituta aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea aplikatzen ari diren enpresek

berriro egin beharko dute langabezia-prestazioen eskaera kolektiboa, aurreko paragrafoan ezarritako moduan, 2020ko urriaren 20a baino lehen.

Langileren bati edo langile guztiei etete- edo murrizte-neurriak kentzen dizkieten enpresek langile horien prestazioaren baja jakinarazi beharko diote entitate kudeatzaileari, neurriak kentzeak eraginkortasuna izan baino lehen.

Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteari erabat eta behin betiko uko egitea erabakitzen duten enpresek ere jakinarazpen hori egin beharko dute.

3. Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 23. artikuluan azaltzen diren arrazoiengatik aldi baterako enplegu-erregulazioko prozedura egiten den kasuetan, enpresaren erabakia honako errege lege-dekretu hau indarrean jarritakoan jakinarazten bazaio lan-agintaritzari, enpresak langabezia-prestazioen eskaera kolektiboa egin beharko du, langileak ordezkatzuz, SEPEren webgunean edo egoitza elektronikoa horretarako ezarritako eremuan. Eskaera hori aurkezteko epea Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 268. artikuluan ezarritakoa izango da.

Espediente berri horietako langileei martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 25.1 artikuluan aurreikusitako neurriak aplikatuko zaizkie, ezertan eragotzi gabe artikuluhonen 7. apartatuan ezarritakoa.

Aitortutako prestazioak 2021eko urtarrilaren 31ra arte iraungo du gehienez ere.

4. Errege lege-dekretu honetan aipatzen diren kontratuak eteteko eta lanaldia murrizteko prozeduretan, langileei aitortutako langabezia-prestazioaren zenbatekoa zehazteko, espedientearen eraginpeko lan-harremanaren oinarri arautzaileari ehuneko 70a aplikatuko zaio 2021eko urtarrilaren 31ra arte, ezertan eragotzi gabe aplikatu ahal izatea Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 270.3 artikuluan aurreikusitako gehieneko eta gutxieneko zenbatekoak (testu bategin hori urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

5. Lehen eta bigarren apartatuetan aurreikusitako kasuetan, langabezia-prestazioen erregularizazioari dagokionez, hilabete natural batean jarduera-aldiak eta jarduerarik gabekoaldiak txandakatzen direnean, bai eta ohiko lanaldia murrizten denean eta biak (jarduerarik gabeko egunak eta lanaldi murriztuko egunak) konbinatzen direnean ere, enpresak, hilaren amaieran, aurreko hilabete naturalean lan egindako egunei buruzko informazioa eman beharko du, [certific@2](mailto:certific@2) aplikazioan jarduera-aldiak jakinaraziz.

Lanaldia murriztuta lan egindako egunen kasuan, lan egindako orduak jarduera-egun oso eta baliokide bihurtuko dira. Horretarako, zatiketa hau egingo da: hilean lan egindako orduen guztizko kopurua zati lanaldi-murrizketa aplikatu aurretik langileak eduki duen ohiko lanaldiko orduen kopurua.

6. Aurreko apartatuan aipatutako jakinarazpena gorabehera, enpresak kontratua eteteko eta lanaldia murrizteko neurrietako bajak eta aldaketak jakinarazi behar dizkio entitate kudeatzaileari aurretiaz, legez ezarritako eran. Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzak eskura edukiko ditu datu horiek.

7. Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 25.1.b) artikuluan aurreikusitako neurria 2020ko irailaren 30era arte egongo da indarrean.

Orain arte neurri hori aplikatu izan zaien aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteetan 2020ko urriaren 1etik aurrera kontsumitutako prestazioen murrizketak ez die eragingo, ordea, 2026ko urriaren 1etik aurrera hasten diren prestazio berriei.

Aurreko paragrafoetan ezarritakoa albora utzi gabe, krisiak beren lanpostuan eragin dien pertsonak babestu behar dira, zaurgarrienak bereziki. Hori dela eta, artikuluhonen 1. apartatuan aipatutako espedienteetan jasotako langabezia-prestazioak inoiz ere ez zaizkie kontsumitutzat zenbatuko 2022ko urtarrilaren 1a baino lehen eskubide berri bat eskuratzen duten pertsonen, eskubide horren arrazoia baldin bada iraunaldi mugatuko kontratu baten amaiera, edo banakako zein taldeko kaleratzea, edo arrazoi ekonomikoa, teknikoa, antolamendukoa edota ekoizpenekoa, edo bidegabeko deklaraturako kaleratzea, zernahi dela ere kaleratze horren arrazoia.

9. artikulua. *Ezohiko prestazioa, aldizkako kontratu finkoa duten pertsonentzat edo sasoi jakinetan errepikatzen diren lan finko eta aldirokoak egiten dituztenentzat.*

1. Ezohiko prestazioa kasu honetan aitortuko zaie aldizkako kontratu finkoa duten langileei eta sasoi jakinetan errepikatzen diren lan finko eta aldirokoak egiten dituztenei, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. eta 23. artikuluetan jasotako arrazoiengatik azken jarduera-aldi teoriko osoan edo zati batean aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente batean sartuta egon diren horiei: aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientean egoteari jarduera-aldia amaitzeko eguna iristeagatik uzten diotenean.

2. Era berean, ezohiko prestazioa aitortuko zaie aldizkako kontratu finkoa duten langileei eta sasoi jakinetan errepikatzen diren lan finko eta aldirokoak egiten dituztenei, baldin eta, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 25.6 artikuluko b) eta d) bitarteko letretan aurreikusitako kasuren batean egoteagatik, neurri horietako edozeinen onuradun izan badira eta, behin neurriok agortuta, lanik gabe jarraitzen badute, ez kotizaziopeko ez laguntzako langabezia-prestaziorik jasotzeko eskubiderik gabe, edo halako prestazioak eduki baina 2021eko urtarrilaren 31 baino lehen agortzen bazaizkie.

3. Prestazio hori 1. apartatuan aipatutako pertsoneri aitortu ahal izateko, enpresak ezohiko prestazioen eskaera kolektiboa aurkeztu beharko du. Bertan bilduko dira aldizkako kontratu finkoa edo sasoi jakinetan errepikatzen diren lan finko eta aldirokoak egiteko kontratua izan eta aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientean egoteari uzten dioten langile guztiak.

Aldiz, 2. apartatuko kasuetan, ukitutako langileek berek eskatu beharko dute artikulua honetan araututako ezohiko prestazioa.

4. Eskaera hori aurkezteko epea Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 268. artikuluan arau orokor gisa ezarritakoa izango da. Errege lege-dekretu hau indarrean jarri aurretik sortutako egoerarako, epea hamabost egun izango da, errege lege-dekretua indarrean jartzen denetik hasita.

5. Hona ezohiko prestazio honen iraupena: martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 25.6 artikuluan ezarritako neurrietatik norberari egokitu zaiona agortzen den egunetik hasi eta 2021eko urtarrilaren 31ra arte. Hala ere, prestazioa eten ahal izango da langilea bere jarduerara itzultzen bada aldi baterako, eta, orduan, enpresak langilearen ezohiko prestazioaren baja jakinarazi beharko dio entitate kudeatzaileari. Langileak berak jakinarazi beharko dio entitate kudeatzaileari bere baja, baldin eta bere kontura lanean hasten bada, edo inoren kontura lanean hasten bada beste enpresa batean, eta ez aldizkako kontratu finkoa daukan enpresan bertan. Kasu guztietan, langilearen eskariz berriz hasi ahal izango da ezohiko prestazioa, langileak aurretik frogatzen badu bere kontura lan egiteari utzi diola bere gogoaren kontra, edo berriz dagoela langabeziako legezko egoeran. Betiere, eskaera hori 2021eko urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da.

Prestazio hau bateragarria izango da inoren kontura lanaldi partzialean aritzearekin, prestaziorako eskubidea sortzen den eguna baino lehenagotik horrelako lan bat edukiz gero, edo ondoren lortuz gero; baina prestazioaren zenbatekotik kendu beharko da lan egindako denborari dagokion zati proportzionala.

6. Prestazio hau hileru ordainduko da, eta ukitutako pertsonak jaso duen kotizaziopeko azken langabezia-prestazioaren zenbateko bera izango du, edo, hala badagokio, kotizaziopeko prestazioaren gutxieneko zenbatekoa.

10. artikulua. *Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientean egon eta langabezia-prestazioen onuradun ez diren langileak*

1. Errege lege-dekretu honen 2. artikuluan eta lehen xedapen gehigarrian aipatzen diren aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteetako langileak, ez badira langabezia-prestazioen onuradun kontratua etenda edo lanaldia murriztuta daukaten bitartean eta enpresa ez badago behartuta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 273.2 artikuluan aipatzen den enpresa-ekarpena ordaintzera, altaren pareko egoeran

daudela iritziko zaio bitarte horietan, aldi horiek benetan kotizatutako alditzat hartu ahal izan daitezzen.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoaren ondorioetarako, kontratua etenda edo lanaldia murriztuta dagoen bitartean kontuan hartu beharreko kotizazio-oinarria egoera horiek hasi aurreko sei hilabeteetako kotizazio-oinarrien batezbestekoa izango da.

3. Errege lege-dekretu honek kotizazioaren salbuespenak aplikatzeko aurreikusten dituen epealdietan soilik aplikatuko da xedapen honetan ezarritakoa.

11. artikulua. *Langabezia-prestazioak zenbait kasutan bateragarriak izatea lanaldi partzialeko lanarekin.*

Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera, prestazioaren zenbatekotik ez da kenduko lan egindako denborari dagokion zati proportzionala, baldin eta errege lege-dekretu honen 1., 2. eta 3. artikuluetan eta lehen xedapen gehigarrian aipatzen diren aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen eremuan aitortzen diren langabezia-prestazioak bateragarri egiten badira etete-neurririk gabeko denbora partzialeko lan batean aritzearekin.

12. artikulua. *Kotizaziopeko langabezia-prestazioa eta denbora partzialeko lana bateragarriak diren zenbait kasutako konpentsazio ekonomikoa.*

1. Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak (COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrienak) 25.1 artikuluan arautzen duen langabezia-prestazioaren onuradun batzuei prestazioaren zenbatekoa murriztu zaie lan egindako denboraren proportzioan, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 282.1 artikulua aplikatuta, hasierako aitortenaren unean lanaldi partzialeko lan-harremanen bat eduki dutelako aldi baterako enplegu-erregulazioko prozedurarik gabekoa. Bada, pertsona horiek konpentsazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea izango dute, eta egin zaien murrizketaren ondorioz jaso ez duten prestazio zatiaren baliokidea izango da.

2. Konpentsazio hori ordainketa bakarrean jasoko da. Aldez aurretik interesdunak eskaera egingo du horretarako ezarritako eremuan. Eskaera SEPEren egoitza elektronikoan aurkeztu beharko da nahitaez, errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik hasi eta 2021eko ekainaren 30era arteko epean. Eskaera, epe horretatik kanpo aurkezten bada, ez da onartuko.

3. Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak 2021eko uztailaren 31ra arteko epea izango du aurkeztutako eskaerak ebazteko. Epe hori igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, eskatzaileak bere eskaera ezetsizat jo ahalko du.

## II. TITULUA

### Langile autonomoei laguntzeko neurriak

13. artikulua. *Jarduera uzteagatiko ezohiko prestazioa langile autonomoentzat: agintaritza eskudunak COVID-19 birusaren hedapena geldiarazteko erabakitako neurrien ondorioz jarduera osoa aldi baterako eten behar dutenentzat eta ez errege lege-dekretu honen laugarren xedapen gehigarrian aurreikusten den prestazio arrunterako eskubiderik eta ez Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrak (8/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa) 327. artikuluan eta hurrengoetan arautzen duen jarduera uzteagatiko prestaziorako eskubiderik ez dutenentzat.*

1. 2020ko urriaren 1etik aurrera, agintaritza eskudunak COVID-19 birusaren hedapena geldiarazteko erabakitako neurrien ondorioz beren jarduera guztiak eten behar

dituzten langile autonomoek eskubidea izango dute jarduera uzteagatiko ezohiko prestazio ekonomikoa jasotzeko, behean ezartzen diren arau eta baldintzen arabera.

a) Hona prestazio hori jasotzeko eskubidea izateko betekizunak:

1.a Afiliatuta eta alta emanda egotea Norberaren Konturako Langileen edo Autonomoen Gizarte Segurantzako Araubide Berezian, edo, hala badagokie, Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Araubide Berezian, jarduera utzarazten dien ebazpenaren data baino 30 egun natural lehenagotik, gutxienez.

2.a Gizarte Segurantzako kuotak ordainduta edukitzea. Hala ere, jarduera eteten den egunean betekizun hori betetzen ez bada, organo kudeatzaileak ordainketa egiteko eskatuko dio langile autonomoari, zor dituen kuotak hogeita hamar egun naturaleko epe luzaezinean ordain ditzan. Zorpekoa erregularizatzeak erabateko ondorioak izango ditu babeserako eskubidea eskuratzeko.

b) Prestazioaren zenbatekoa hau izango da: egiten den jarduerari dagokion gutxieneko kotizazio-oinarriaren ehuneko 50.

Zenbateko hori ehuneko 20 handituko da baldin eta langile autonomoa familia ugari kide aitortua bada eta familia-unitatearen edo pareko unitatearen diru-sarrerak bakarrik etendako jardueratik atera behar baziren jarduera etenda dagoen bitarte horretan.

Hala ere, elkarrekin familia-lotura edo pareko bizikidetasun-lotura duten pertsona batzuk bizi badira etxe berean, lehen mailara arteko odol- edo ezkontza-ahaideak, eta haietako bik edo gehiagok badute jarduera uzteagatiko ezohiko prestazioa jasotzeko eskubidea, prestazio bakoitzaren zenbatekoa ehuneko 40 izango da, eta ez da aplikatuko aurreko apartatuan familia ugari buruz ezarritakoa.

c) Agintaritza eskudunak jarduera itxiarazten duen neurria erabaki eta hurrengo egunean sortuko da prestaziorako eskubidea, eta neurria kentzea erabakitzen den hilaren azken egunean amaituko da.

d) Jarduera etenda dagoen bitartean kasuan kasuko araubide bereziko altari eutsiko zaio eta langile autonomoak ez du kotizatu beharrik izango. Kuoten ordainketaren salbuespena jarduera itxiarazten duen neurria erabakitzen den hilaren lehenengo egunean hasiko da, eta neurri hori kendu eta hurrengo hilaren azken egunera arte iraungo du.

Langile autonomoa kotizatu beharretik salbuesita dagoen aldia kotizatutako aldizat joko da. Beren aurrekontuen kargura prestazioa ordaintzen duten entitateek ordainduko dituzte haren kotizazioak.

Ezohiko prestazio hau jaso bitartean aplikatu beharreko kotizazio-oinarria, beti, prestazioa hastean indarrean egon dena izango da.

Jarduera uzteagatiko ezohiko prestazio hau jasotzen duen langileak kotizazioan kenkariren bat aplikatzeko eskubidea badu, kenkari horren gehieneko iraupena eta gainerako baldintzak ez dira aldatuko ezohiko prestazio hau jasotzeagatik.

Mutualitate laguntzaileek eta Itsasoko Gizarte Institutuak behar den informazioa emango diote Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarri, hark ezartzen dituen prozeduren bidez, apartatu honetan ezarritakoa aplikatzeko, bai prestazioaren behin-behineko aitopenean unean, baita geroko berrikuspenean ere, i) letran ezarritakoarekin bat.

e) Prestazioa jasotzea bateraezina izango da inoren konturako lanaren ordainsaria jasotzearekin (salbu eta inoren konturako lanaren bidezko diru-sarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata halako 1,25 baino txikiagoak direnean), norberaren kontura beste jardueraren bat izatearekin, itxitako jardueraren jabe den sozietatetik etekinak jasotzearekin, eta Gizarte Segurantzako prestazioren bat jasotzearekin (salbu eta onuradunak lehendik ere jasotzen bazuen, bere jarduerarekin bateragarria izateagatik).

Itsasoko Langileen Araubide Berezia duten langile autonomoei dagokienez, jarduera uzteagatiko prestazioa bateraezina izango da, gainera, flota gerarazteko laguntzak jasotzearekin.

f) Lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileek ere ezohiko prestazio hau jasotzeko eskubidea izango dute, baldin eta erabaki badute Norberaren Konturako Langileen Araubide Berezian sartzea eta apartatu honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

g) Prestazio hau kudeatzea Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateen edo Itsasoko Gizarte Institutuaren ardura izango da.

h) Prestazioa jasotzen igaro den denborak ez ditu laburtuko jarduera eteteagatik onuradunak etorkizunean jaso ditzakeen prestazioen aldiak.

i) Jarduera ixteko erabakia edo ebazpena indarrean jarri eta hurrengo hamabost egunen barruan eskatu beharko da artikulu honetan araututako prestazioaren aitortpena.

Eskaera ezarritako epetik kanpo aurkezten bada, prestaziorako eskubidea eskaeraren egunean hasiko da. Hala ere, langilea kotizatu beharretik salbuetsita egongo da gobernu-agintaritzak jarduera debekatzea erabakitzen duen hilaren lehenengo egunetik aurrera; baina kasu horretan ez da kotizatuztat joko eskaera-dataren aurretiko aldia, eta prestazioak ordaintzen dituzten erakundeek ez dute ordainduko kotizazio hori.

Prestazio hau kudeatzen duten entitateek, aurkeztutako eskabidearen –eta, hala badagokio, aurkeztutako dokumentuen– arabera, dagokien behin-behineko ebazpena emango dute, eskubidea baiesteko edo ezesteko. Jarduera itxiarazten duen neurria amaitutakoan, emandako behin-behineko ebazpen guztiak berrikusiko dira. Ondorioztatzen bada interesdunak ez duela prestaziorako eskubiderik, bidegabeki jasotako diru kopuruak erreklamatzeko izapideak hasiko dira, eta, gainera, prestazioa bidegabeki jaso den aldi osoari dagozkion kotizazioak ordaindu beharko dira. Gizarte Segurantzako sistemaren diru-bilketa kudeatzeko prozedura bete-betean aplikatuko da.

j) Prestazioaren eskabidean interesdunak mutualitateari edo prestazioa kudeatzen duen erakundeari jakinarazi beharko dio zer kide dituen familia-unitateak eta ea haietako inork jasotzen duen edo jaso dezakeen jarduera uzteagatik prestazioa edo haietako inork baduen bestelako diru-sarrerarik.

Eskabidearekin batera zinpeko aitortpena aurkeztuko da inoren konturako lanaren truke jasotzen diren diru-sarrierei buruz, halakorik bada. Nolanahi ere, prestazioaren hartzaileak enpresa-ziurtagiria eta errentaren aitortpena aurkeztu beharko dizkio prestazioa kudeatzen duen erakundeari, hark hala eskatuz gero.

2. Apartatu honetan ezarritako betekizunak biltzen dituzten langile autonomoek, 2020ko urriaren 1etik aurrera, jarduera uzteagatik ezohiko prestazio ekonomiko bat jaso ahalko dute behean azaltzen den moduan.

a) Hona hemen prestazio horretarako eskubidea izateko bildu behar diren betekizunak:

1.a Alta emanda egotea eta kotizazioak ordainduta edukitzea Langile Autonomoen Araubide Berezian edo Itsasoko Langileen Araubide Berezian, norberaren konturako langile gisa, 2020ko apirilaren 1a baino lehenagotik.

Hala ere, eskaera aurkezten den egunean ez bada betetzen kotizazioak ordainduta edukitzeko betekizuna, organo kudeatzaileak ordainketa egiteko eskatuko dio langile autonomoari, zor dituen kuotak hogeita hamar egun naturaleko epe luzaezinean ordain ditzan. Zorpekoa erregularizatzeko erabateko ondorioak izango ditu babeserako eskubidea eskuratzeko.

2.a Ezin jaso izatea arau honen laugarren xedapen gehigarrian arautzen den jarduera uzteagatik prestazioa edo Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 327. artikuluan eta hurrengoetan arautzen den jarduera uzteagatik prestazioa, ez direlako betetzen arauan eskatutako gabezia-betekizunak (testu bategin hori urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

3.a Norberaren konturako jardueraren bitartez lanbide arteko gutxieneko soldatetik gorako diru-sarrerarik lortu ez izana 2020ko ekitaldiko azken hiruhilekoan.

4.a 2020ko laugarren hiruhilekoan norberaren konturako jardueraren bidezko diru-sarrerak % 50 murriztu izana, gutxienez, 2020ko lehen hiruhilekoan izandako diru-sarriren aldean.



Diru-sarreraren murrizketa kalkulatzeko, 2020ko lehen hiruhilekoan alta emanda egondako aldia hartuko da kontuan, eta konparazioa egingo da laugarren hiruhilekoan beste horrenbeste denboran izandako diru-sarrerekin.

b) Prestazioaren zenbatekoa hau izango da: egiten den jarduerari dagokion gutxieneko kotizazio-oinarriaren ehuneko 50.

Hala ere, elkarrekin familia-lotura edo pareko bizikidetasun-lotura duten pertsona batzuk bizi badira etxe berean, lehen mailara arteko odol- edo ezkontza-ahaideak, eta haietako bik edo gehiagok badute jarduera uzteagatiko ezohiko prestazio hau jasotzeko eskubidea, prestazio bakoitzaren zenbatekoa ehuneko 40 izango da.

c) Jarduera uzteagatiko ezohiko prestazio hau 2020ko urriaren 1etik aurrerako ondorioekin sortu ahal izango da eta gehienez lau hilabete iraungo du, baldin eta eskaera urriaren lehenengo hamabost egun naturalen barruan aurkezten bada. Hala egin ezean, eskaera aurkeztu eta hurrengo hilaren lehen egunean hasiko dira ondorioak, eta prestazioak 2021eko urtarrilaren 31ra arte iraungo du gehienez.

d) Prestazioa jasotzea bateraezina izango da inoren konturako lanaren ordainsaria jasotzearekin (salbu eta inoren konturako lanaren bidezko diru-sarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata halako 1,25 baino txikiagoak direnean), norberaren kontura beste jardueraren bat izatearekin, sozietate baten etekinak jasotzearekin, eta Gizarte Segurantzako prestazioren bat jasotzearekin (salbu eta onuradunak lehendik ere jasotzen bazuen, bere jarduerarekin bateragarria izateagatik).

Itsasoko Langileen Araubide Berezian sartutako langile autonomoei dagokienez, jarduera uzteagatiko prestazioa bateraezina izango da, gainera, flota gerarazteko laguntzak jasotzearekin.

e) Prestazioa jaso bitartean kasuan kasuko araubide bereziko altari eutsiko zaio eta langile autonomoak ez du kotizatu beharrik izango.

Langile autonomoa kotizatu beharretik salbuetsita dagoen aldia kotizatutako alditzat joko da. Beren aurrekontuen kargura prestazioa ordaintzen duten entitateek ordainduko dituzte kotizazioak.

Ezohiko prestazio hau jaso bitartean aplikatu beharreko kotizazio-oinarria, beti, prestazioa hastean indarrean egon dena izango da.

Jarduera uzteagatiko ezohiko prestazio hau jasotzen duen langileak kotizazioan kenkariren bat aplikatzeko eskubidea badu, kenkari horren gehieneko iraupena eta gainerako baldintzak ez dira aldatuko ezohiko prestazio hau jasotzeagatik.

Mutualitate laguntzaileek eta Itsasoko Gizarte Institutuak behar den informazioa emango diote Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari, hark ezartzen dituen prozeduren bidez, apartatu honetan ezarritakoa aplikatzeko, bai prestazioaren behin-behineko aitopenen unean, baita geroko berrikuspenean ere, i) eta j) letretan ezarritakoarekin bat.

f) Prestazio hau jasotzen duten langile autonomoek, jarduera utzi dutela-eta kotizatu gabe badaude, kotizatu beharra izango dute prestazioa amaitu eta hurrengo hilabetetik aurrera.

g) Prestaziorako eskubidea azkendu egingo da baldin eta hura jaso bitartean betekizunak biltzen badira arau honen laugarren xedapen gehigarrian arautzen den jarduera uzteagatiko prestazioa jaso ahal izateko edo Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 327. artikuluan eta hurrengoetan arautzen den jarduera uzteagatiko prestazioa jaso ahal izateko (testu bategin hori urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen). Horrek ez du ezertan eragozten interesdunak eskubidea izatea dagokion prestazioa eskatzeko.

h) Lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileek ere eskubidea izango dute ezohiko prestazio hau ezarritako eran jasotzeko, baldin eta erabaki badute norberaren konturako langile gisa sartzea dagokien araubide berezian eta apartatu honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

i) Prestazio hau kudeatzea Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateen edo Itsasoko Gizarte Institutuaren ardura izango da.

Prestazio hau kudeatzen duten entitateek, aurkeztutako eskabidearen –eta, hala badagokio, aurkeztutako dokumentuen– arabera, dagokien behin-behineko ebazpena emango dute, eskubidea baiesteko edo ezesteko.

Eskabidearekin batera zinpeko aitortpena aurkeztuko da inoren konturako lanaren truke jasotzen diren diru-sarrereri buruz, halakorik bada. Nolanahi ere, prestazioaren hartzaileak enpresa-ziurtagiria eta errentaren aitortpena aurkeztu beharko dizkio prestazioa kudeatzen duen erakundeari.

j) 2021eko martxoaren 1etik aurrera, emandako behin-behineko ebazpen guztiak berrikusiko dira.

1.a Horretarako, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateek –betiere interesdunen baimena jasoz gero– edo Itsasoko Gizarte Institutuak langile autonomoen 2020ko zerga-datuak eskatuko dizkiote Ogasun Ministerioari.

Baldin eta Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateek edo Itsasoko Gizarte Institutuak ezin badituzte eskuratu zerga-administrazioetan jasorik dauden datuak, langile autonomoek agiri hauek eman beharko dizkiote mutualitate laguntzaileari:

2020ko 390 ereduaren kopia (BEZaren urteko laburpen-aitortpena).

2020ko 130 ereduaren kopia (pertsoneko fisikoaren errentaren gaineko zergaren zatikako ordaintzaren autolikidazioa).

Pertsoneko fisikoaren errentaren aitortpena, edo inoren kontura jasotako ordainsariak agertzen dituen enpresa-ziurtagiria.

Pertsoneko fisikoaren errentaren gaineko zerga (PFEZ) zenbatespen objektiboaren bidez (131 eredua) ordaintzen duten langile autonomoek behar den dokumentazioa aurkeztu beharko dute manu honetan diru-sarrereri buruz eskatutakoa betetzen dutela frogatzeko.

2.a Interesdunak prestazioa jasotzeko eskubiderik ez duela ondorioztatzen bada, bidegabe jasotako zenbatekoak erreklamatzeko izapideak hasiko dira.

Horretarako, prestazioa aitortzeko eskumena duen erakundeak ebazpena emango du itzuli beharreko diru kopurua zehazteko. Interes edo errekarurik gabe itzuliko da, ebazpenean ezartzen den epean.

Ebazpenean ezarritako epea igarota, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak zorra erreklamatu du eta dagozkion errekaru eta interesak ere eskatuko ditu, Gizarte Segurantzaren Diru Bilketaren Erregelamendu orokorrean diru-bilketarako ezarritako administrazio-prozedurari jarraituz (erregelamendu hori ekainaren 11ko 1415/2004 Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

k) Prestazioa eskatzean, interesdunak mutualitateari edo prestazioa kudeatzen duen erakundeari jakinarazi beharko dio zer kide dituen familia-unitateak eta ea haietako inork jasotzen duen edo jaso dezakeen jardura uzteagatiko prestazioa edo haietako inork baduen bestelako diru-sarrerarik.

l) Apartatu honetan arautzen den prestazioa ordaintzeko eskatu eta gero, langileak zilegi izango du:

Prestazioari uko egitea noiznahi, 2021eko urtarrilaren 31 baino lehen. Uko-egite horrek jakinarazi eta hurrengo hilean sortuko ditu ondorioak.

Jardura uzteagatiko prestazioa bere kabuz itzultzea, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutualitateak edo entitate kudeatzaileak erreklamatu zain egon gabe, uste badu 2020ko laugarren hiruhilekoan izandako diru-sarrerak edo aldi horretako fakturazioaren beherakadak 2. apartatuan ezarritako atalaseak gaindituko dituztela eta ondorioz prestaziorako eskubidea galduko duela.

#### 14. artikulua. *Jardura uzteagatiko ezohiko prestazioa sasoikako langileentzat.*

1. Manu honen ondorioetarako, sasoikako langileak dira azken bi urteetan ekainetik abendura bitartean lan bakarrean soilik jardun duten langile autonomoak, Langile Autonomoen Araubide Berezian zein Itsasoko Langileen Araubide Berezian jardun.

Langile autonomo batek 2018an eta 2019an ekainetik abendura bitartean lan bakarrean soilik jardun duela iritziko zaio baita inoren konturako langile gisa gizarte segurantzako araubideren batean alta emanda egon denean ere, baldin eta araubide horretako alta-egunak gehienez ere 120 izan badira bi urte horietan zehar.

2. Hona prestazioa jasotzeko eskubidea izateko betekizunak:

a) Norberaren konturako langile gisa Langile Autonomoen Araubide Berezian edo Itsasoko Langileen Araubide Berezian alta emanda eta kotizatzen aritu izana gutxienez launa hilabetean 2018an eta 2019an, ekainetik abendura bitartean.

b) Inoren konturako langile gisa Gizarte Segurantzako araubide batean alta emanda edo altaren pareko egoeran gehienez ere 120 egun egin izana 2018ko ekainaren 1etik 2020ko uztailaren 31ra bitartean.

c) 2020ko martxoaren 1etik maiatzaren 31ra bitartean jarduerarik gabe eta alta eman gabe edo altaren pareko egoerarik gabe egon izana.

d) Gizarte Segurantzaren sistemako inolako prestaziorik jaso ez izana 2020ko urtarriletik ekainera bitartean, langile autonomo gisa jardutearekin bateragarriak diren prestazioak izan ezik.

e) 2020. urtean 23.275 eurotik gorako diru-sarrerak lortu ez izana.

f) Gizarte Segurantzako kuotak ordainduta edukitzea. Hala ere, baldintza hori betetzen ez bada, organo kudeatzaileak ordainketa egiteko eskatuko dio langile autonomoari, zor dituen kuotak hogeita hamar egun naturaleko epe luzaezinean ordain ditzan. Zorpekoa erregularizatzeko erabateko ondorioak izango ditu babeserako eskubidea eskuratzeko.

3. Artikulu honetan araututako prestazioaren zenbatekoa gutxienezko kotizazio-oinarriaren ehuneko 70 izango da, kasuan kasuko jarduerari dagokiona Norberaren Konturako Langileen edo Autonomoen Gizarte Segurantzako Araubide Berezian nahiz Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Araubide Berezian.

4. Artikulu honetan arautzen den jarduera uzteagatiko ezohiko prestazioa 2020ko urriaren 1etik aurrera sortu ahal izango da eta gehienez lau hilabete iraungo du, baldin eta eskaera urriaren lehenengo hamabost egun naturalen barruan aurkezten bada. Hala egin ezean, eskaera aurkeztu eta hurrengo egunean hasiko dira prestazioaren ondorioak.

5. Prestazioa jasotzen ari den bitartean langileak ez du kotizatu beharrik izango, eta alta emanda edo altaren pareko egoeran jarraituko du Gizarte Segurantzako kasuan kasuko araubidean.

6. Prestazioa beren aurrekontuen kargura ordaintzen duten entitateek beren gain hartuko dituzte langileak ordaindu behar ez dituen kotizazioak ere.

7. Prestazio hau bateraezina izango da inoren kontura lan egitearekin, baita onuradunak lehendik jaso lezakeen Gizarte Segurantzako beste edozein prestaziorik ere, non eta ez den bateragarria norberaren konturako langile gisa jardutearekin. Era berean bateraezina izango da norberaren konturako lanarekin eta jarduera itxi behar izan duen sozietatetik etekinak jasotzearekin, baldin eta 2020. urtean jasotzen diren diru-sarrerak 23.275 eurotik gorakoak badira.

Itsasoko Langileen Araubide Berezian sartutako norberaren konturako langileei dagokienez, jarduera uzteagatiko prestazioa bateraezina izango da, gainera, flota gerarazteko laguntzak jasotzearekin.

8. Lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileek ere ezohiko prestazio hau jasotzeko eskubidea izango dute baldintza berdinetan, erabaki badute norberaren konturako langileen araubide berezian sartzea eta artikulu honetan ezarritako betekizunak betetzen badituzte.

9. Prestazio hau kudeatzea Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateen edo Itsasoko Gizarte Institutuaren ardura izango da.

10. Artikulu honetan araututako prestazioa noiznahi eskatu ahal izango da araua indarrean jartzen denetik, 2021eko urtarrilera arte.

Eskaeraren ondorioak 4. apartatuan adierazitakoak izango dira.

Entitate kudeatzaileek, aurkeztutako eskabidearen –eta, hala badagokio, aurkeztutako dokumentuen– arabera, dagokien behin-behineko ebazpena emango dute, eskubidea baiesteko edo ezesteko.

11. 2021eko martxoaren 1etik aurrera, emandako behin-behineko ebazpen guztiak berrikusiko dira.

a) Horretarako, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateek –betiere interesdunen baimena jasoz gero– edo Itsasoko Gizarte Institutuak langile autonomoen 2020ko bigarren seihilekoko zerga-datuak eskatuko dizkiote Ogasun Ministerioari.

Baldin eta Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateek edo Itsasoko Gizarte Institutuak ezin badituzte eskuratu zerga-administrazioetan jasorik dauden datuak, langile autonomoek agiri hauek eman beharko dizkiote mutualitate laguntzaileari:

2020ko 390 ereduaren kopia (BEZaren urteko laburpen-aitorpena).

2020ko 130 ereduaren kopia (pertsone fisikoen errentaren gaineko zergaren zatikako ordainketaren autolikidazioa).

Pertsone fisikoen errentaren gaineko zerga (PFEZ) zenbatespen objektiboaren bidez (131 eredua) ordaintzen duten langile autonomoek behar den dokumentazioa aurkeztu beharko dute manu honetan diru-sarrerei buruz eskatutakoa betetzen dutela frogatzeko.

b) Interesdunak prestazioa jasotzeko eskubiderik ez duela ondorioztatzen bada, bidegabe jasotako zenbatekoak erreklamatzeko izapideak hasiko dira.

Horretarako, prestazioa aitortzeko eskumena duen erakundeak ebazpena emango du itzuli beharreko diru kopurua zehazteko. Diru kopuru hori interes edo erreklargurik gabe itzuliko da, ebazpenean ezartzen den epean.

Ebazpenean ezarritako epea igarota, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak zorra erreklamatu du eta dagozkion erreklargu eta interesak ere eskatuko ditu, Gizarte Segurantzaren Diru Bilketaren Erregelamendu orokorrean diru-bilketarako ezarritako administrazio-prozedurari jarraituz (erregelamendu hori ekainaren 11ko 1415/2004 Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

12. Apartatu honetan arautzen den prestazioa ordaintzeko eskatu eta gero, langile autonomoak zilegi izango du:

Prestazioari uko egitea noiznahi, 2020ko abenduaren 31 baino lehen. Uko-egite horrek jakinarazi eta hurrengo hilean sortuko ditu ondorioak.

Jarduera uzteagatiko prestazioa bere kabuz itzultzea, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutualitateak edo entitate kudeatzaileak erreklamatu zain egon gabe, uste baldin badu prestaziorako eskubidea izan dezakeen bitartean jardueraren bidez lortuko dituen diru-sarrerak 2.e) apartatuan ezarritako atalaseak gaindituko dituztela eta ondorioz prestaziorako eskubidea galduko duela.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen estaldura-tasa handia eta jarduera suspertzeko tasa txikia dituzten sektoreetako enpresak.*

Estaldura-tasa handia eta jarduera suspertzeko tasa txikia dituzten sektoreetako enpresatzat joko dira aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak automatikoki 2021eko urtarrilaren 31ra arte luzatuta daukatenak, 1. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, baldin eta haien jarduerak Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalean (EJSN-09) duen kodea arau honen eranskinean agertzen diren horietako bat bada arau hau indarrean jartzen den unean.

Halaber, 1. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak automatikoki 2021eko urtarrilaren 31ra arte luzatuta daukaten enpresek xedapen gehigarri honen hirugarren apartatuan aurreikusten diren salbuespenak lortu ahal

izango dituzte, baldin eta, zeharbidez eta gehienbat, aurreko apartatuan aipatzen diren enpresen mende aritzen badira beren negozioan, edo enpresa horien balio-katearen parte badira, behean azaltzen den eran.

Enpresa bat 1. apartatuan aipatzen diren enpresen balio-katearen parte dela edo zeharbidez haien mendekoa dela iritzeko, 2019. urtean haren fakturazioaren ehuneko 50, gutxienez ere, aipatutako eranskinean ageri diren EJSN-09 kodeetako enprekin zuzenean egindako eragiketetatik sortua izan behar du, edo haren egiazko jarduera EJSN-09 kode horiek dituzten enpresen egiazko jardueraren mende egon behar du zeharbidez.

Enpresa mendekoa dela edo balio-katearen parte dela deklaratzeko eskaera 2020ko urriaren 5etik 19ra bitartean aurkeztu beharko da, eta honako prozedura honi jarraituz izapidetu eta ebatziko da:

a) Prozedura abiarazteko, enpresak eskaera aurkeztuko dio aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente luzatuari buruzko berariazko edo isilbidezko ebazpena eman duen lan-agintaritzari, eta txosten edo memoria bat erantsiko du, zeinak azalduko baitu nola espedienteak apartatu honetako bigarren paragrafoan aurreikusitako inguruabarrak biltzen dituen. Behar izanez gero, egiaztagiriak ere aurkeztuko ditu. Enpresak eskaeraren berri emango die langileei, eta langileen ordezkarietara txostena helaraziko die, bai eta egiaztagiriak ere, halakorik bada.

b) Eskaera aurkezten denetik bost egun igaro baino lehen emango du ebazpena lan-agintaritzak, baina aurretik txostena eskatuko dio Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzari. Ebazpenean, enpresa balio-katearen parte dela edo zeharbidez mendekoa dela berretsi baino ez du egingo, xedapen gehigarri honetan adierazitako eran.

Aipatutako epean berariazko ebazpenik ematen ez bada, enpresak pentsatu beharko du aurkeztu duen eskaera isiltasun administratiboz baietsi diotela. Horrek ez du kentzen ebazpena eman behar izatea administrazio-prozeduraren araudiari jarraituz.

c) Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzak bost eguneko epe luzaezina izango du txostena bideratzeko.

Apartatu honetan aurreikusita ez dauden gai guztietan, Kaleratze kolektiboaren eta kontratu-eteteen eta lanaldi-murrizteen prozeduren Erregelamenduaren II. tituluko prozedura-arauak aplikatuko dira (erregelamendu hori urriaren 29ko 1483/2012 Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

3. 2020ko urriaren 1etik 2021eko urtarrilaren 31ra bitartean, honako enpresa hauek Gizarte Segurantzako kotizaziorako enpresa-ekarpina eta horrekin batera biltzen diren kontzeptuetarako ekarpina ordaindu beharretik salbuetsita egongo dira, behean adierazten diren portzentaje eta baldintzetan:

a) Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluan oinarritutako aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente indarduna 1.1 artikuluan ezarritakoaren arabera automatikoki luzatzen zaien enpresak, baldin eta, xedapen gehigarri honen 1. eta 2. apartatuen arabera, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen estaldura-tasa handia eta jarduera suspertzeko tasa txikia dituzten sektoreetako enpresak badira.

b) 3.3 artikuluan aipatutako enpresak, hau da, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluko ezinbesteko arrazoietan oinarritutako aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente batetik arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolamendukoak edo ekoizpenekoak dituen beste batera aldatzen direnak arau honen indarraldian, baldin eta haien jarduerak Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalen –EJSN-09– duen kodea arau honen eranskinean agertzen diren horietakoa bada arau hau indarrean jartzen den unean.

c) Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 23. artikuluan oinarritutako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak duten enpresak, 24/2020 Errege Lege Dekretuaren 4.2 artikuluan aipatzen direnak (24/2020 Errege Lege Dekretua, ekainaren 26koa, Enplegua suspertzeko eta lan autonomia babesteko gizarte-neurriena eta industria-sektorearen lehiakortasunarena), baldin eta haien jarduerak Ekonomia Jardueren

Sailkapen Nazionalen –EJSN-09– duen kodea arau honen eranskinean agertzen diren horietakoa bada arau hau indarrean jartzen den unean.

d) Mendeko edo balio-katearen parte kalifikatutako enpresak, baldin eta martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluko ezinbesteko arrazoietan oinarritutako aldi baterako enplegu-espeditante batetik arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolamendukoak edo ekoizpenekoak dituen beste batera aldatzen badira, 3.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

4. Aurreko apartatuan adierazitako enpresak salbuetsita geratuko dira, aldi baterako enplegu-erregulazioko espeditantean egon eta 2020ko urriaren 1etik aurrera lanera itzultzen diren langileei dagokienez –edo maiatzaren 12ko 18/2020 Errege Lege Dekretua indarrean jarriz geroztik itzuli direnei, haren 4.2.a) artikuluko baldintzetan– eta 2020ko urriaren 1etik aurrera lan egindako aldiei eta lanaldi-portzentajeei dagokienez, eta, halaber, 2020ko urriaren 1etik 2021eko urtarrilaren 31ra bitartean jarduerak etenda dauzkaten langileei dagokienez eta etendako aldiei eta lanaldi-portzentajeei dagokienez. Hona hemen salbuespen horren portzentajeak eta baldintzak:

a) 2020ko urrian, azaroan eta abenduan eta 2021eko urtarrilean sorrarazitako enpresa-ekarpenaren % 85, baldin eta enpresak 2020ko otsailaren 29an berrogeita hamar langile edo langileen pareko pertsona baino gutxiago eduki baditu Gizarte Segurantzaren alta emanda.

b) 2020ko urrian, azaroan eta abenduan eta 2021eko urtarrilean sorrarazitako enpresa-ekarpenaren % 75, baldin eta enpresak 2020ko otsailaren 29an berrogeita hamar langile edo langileen pareko pertsona edo gehiago eduki baditu Gizarte Segurantzaren alta emanda.

5. Xedapen gehigarri honetan araututako salbuespenak bateraezinak izango dira arau honen 2. artikuluan araututako neurriekin. Halaber, aplikatzekoak izango zaizkie errege lege-dekretu honen 2. artikuluan 3., 4., 5., 6. eta 7. apartatuak.

6. Xedapen gehigarri honetan ezarritakoaren ondorioetarako, hau izango da enpresaren jarduerak EJSN-09 sailkapenean duen kodea: laneko istripuen eta lanbide-gaixotasunen estaldurarako kotizazio-tasak zehazteko 2020ko irailean aurkeztutako kuota-likidazioetan aplikatu behar dena, 2007rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 42/2006 Legearen laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

Bigarren xedapen gehigarria. *Laneko Hiruko Jarraipen Batzordea.*

1. Laneko Hiruko Jarraipen Batzordeak partaide hauek izango ditu: Laneko eta Gizarte Ekonomiako Ministerioa, Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioa, Espainiako Enpresaburuen Elkartearen Konfederazioa (CEOE), Espainiako Enpresa Txiki eta Ertainen Konfederazioa (CEPYME), eta Comisiones Obreras (CCOO) eta Unión General de Trabajadores (UGT) sindikatuak. Haren eginkizunak izango dira, errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera, hemen jasotako neurriak eta jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren bilakaera baloratzea eta enplegua eta ekoizpen-ehuna babesteko etorkizunean hartzen diren neurriak aztertzea.

2. Eginkizun horiek betetzeko, batzordeak bilera arrunta egingo du hamabost egunetik behin, arau hau indarrean jartzen denetik aurrera; Laneko eta Gizarte Ekonomiako Ministerioak deialdia igorri beharko du aurretiaz. Bilera bereziak, berriz, batzordea osatzen duten lau antolakundeetatik hiruk eskatzen duten bakoitzean egingo dira.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Aldi baterako enplegu-erregulazioko espeditanteek eragiten dieten pertsonen prestakuntza.*

1. Arau honetan aipatzen diren aldi baterako enplegu-erregulazioko espeditante horietako baten ondorioz kontratua etenda edo lanaldia murriztuta daukaten langileak

lehenasunezko kolektibotzat joko dira lan-esparruan enplegurako lanbide-prestakuntza jasotzeko sistemako prestakuntza-ekimenetan parte hartu ahal izateko.

2. Horretarako, arau hau indarrean jarri eta hiru hilabeteko epean, neurri hauek hartuko dira:

a) Arauak egokitzea, haiek malgutzearren; bereziki, honako hau: TMS/368/2019 Agindua, martxoaren 28koa, zeinaren bidez uztailaren 3ko 694/2017 Errege Dekretua garatzen baita administrazio eskudunen prestakuntza-eskaintzari eta haren finantzaketari dagokienez eta hura finantzatzeko dirulaguntza publikoak emateko oinarri arautzaileak ezartzen baitira (errege-dekretu horrek Lan-arloko Enplegurako Lanbide-heziketaren Sistema arautzen duen irailaren 9ko 30/2015 Legea garatzen du).

b) Langile horiek lehenasunezko kolektibo gisa sartzea enplegurako lanbide-heziketako ekimenen oinarri arautzaileetan.

c) Langile horien ekoizpen-errealitateari egokitutako prestakuntza-plan berariazkoak programatzea, zeinetan garrantzi berezia izango baitute eraldaketa digitalerako gaitasunak eskuratzearekin zerikusia duten ekimenek, bai eta sektoreko eta sektorearteko prestakuntza-planek ere.

Laugarren xedapen gehigarria. *Jarduera uzteagatiko prestazio norberaren konturako lanarekin bateragarria dena izateko eskubidea, eta 24/2020 Errege Lege Dekretuaren 9. artikulua babesean jada sortutako prestazioen iraunaldia luzatzekoa (24/2020 Errege Lege Dekretua, ekainaren 26koa, Enplegua suspertzeko eta lan autonomoa babesteko gizarte-neurriena eta industria-sektorearen lehiakortasunarena).*

1. Langile autonomoek, arau hau indarrean jartzen denean 24/2020 Errege Lege Dekretuaren 9. artikuluan jarduera uzteagatik aurreikusitako prestazioa jasotzen ari badira (24/2020 Errege Lege Dekretua, ekainaren 26koa, Enplegua suspertzeko eta lan autonomoa babesteko gizarte-neurriena eta industria-sektorearen lehiakortasunarena), hura jasotzen jarraitu ahal izango dute 2021eko urtarrilaren 31ra arte, baldin eta prestazioa emateko ezarri ziren baldintzei eusten badiete 2020ko laugarren hiruhilekoan.

2020ko hirugarren hiruhilekoan prestazio hori jaso ez duten langile autonomoek, bestalde, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 327. artikuluan jarduera uzteagatik aurreikusitako prestazioa eskatu ahal izango dute (testu hori urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen), baldin eta arauaren 330.1 artikuluko a), b), d) eta e) letretan ezarritako baldintzak betetzen badituzte eta ekainaren 30era arte jaso badute martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak 17. artikuluan jarduera uzteagatik aurreikusten duen ezohiko prestazioa (8/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 17koa, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrienak).

2. Prestazioa luzatu ahal izateko edo, hala behar denean, prestazioa bera eskuratu ahal izateko, langile autonomoak frogatu beharko du 2020ko laugarren hiruhilekoan fakturazioa gutxienez ehuneko 75 murriztu zaiola 2019ko epe berean izandakoaren aldean, eta, halaber, 2020ko hiruhileko horretan ez duela lortu 5.818,75 eurotik gorako etekin garbirik.

Hileko prestaziorako eskubidea zehazteko, laugarren hiruhilekoko etekin garbiak hainbanatuko dira, eta ezingo dira hilean 1.939,58 euro baino gehiago izan.

Beren kargura langileren bat duten langile autonomoek lan-arloko eta Gizarte Segurantzako betebeharrak guztiak bete dituztela frogatu beharko dute prestazioa eskatzean. Horretarako, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko dute, eta Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateek edo entitate kudeatzaileak errekerimendua egin ahalko diete behar diren egiaztagiria aurkez ditzaten.

3. Prestazio hori gehienez ere 2021eko urtarrilaren 31ra arte jaso ahal izango da, baldin eta langileak prestazioa jasotzeko eskubidea badu Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 338. artikuluan ezarritako baldintzen arabera.

Era berean, langile autonomoek, baldin eta jarduera uzteagatiko prestazioa jasotzen ari badira ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretuaren 9. artikulua babesean

urriaren 31n, eta manu horretan aurreikusitako eskubidea 2020ko abenduaren 31 baino lehenago azkentzen bazaie, orduan ere jasoko dute prestazioa 2021eko urtarrilaren 31ra arte; betiere, horretarako eskatzen diren baldintza guztiak bete beharko dituzte.

2021eko urtarrilaren 31tik aurrera, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren 330. artikuluko baldintza guztiak betetzen direnean bakarrik jarraitu ahalko da jarduera uzteagatiko prestazio hori jasotzen.

4. Prestaziorako eskubidea mutualitate laguntzaileek edo Itsasoko Gizarte Institutuak aitortuko dute, behin-behinean, eta ondorioak 2020ko urriaren 1ean sortuko dira, prestazioa urriaren 15a baino lehenago eskatzen bada, edo eskaeraren biharamunean, bestela. Prestazioa erregularizatu egin beharko da 2021eko martxoaren 1etik aurrera.

5. 2021eko martxoaren 1etik aurrera, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateek –betiere interesdunen baimena jasoz gero, zeina eskaeran agertuko baita– edo Itsasoko Gizarte Institutuak 2019ko eta 2020ko zerga-datuak eskatuko dizkiote Ogasun Ministerioari, aitortutako prestazioen jarraipena eta kontrola egin ahal izateko.

Baldin eta Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateek edo Itsasoko Gizarte Institutuak ezin badituzte eskuratu zerga-administrazioetan dauden datuak, langile autonomoek agiri hauek eman beharko dizkiote mutualitate laguntzaileari:

2019ko eta 2020ko laugarren hiruhilekoetako aitortenarako 303 ereduaren kopia (BEZ balio erantsiaren gaineko zergaren autolikidazioa).

2019ko eta 2020ko bigarren eta laugarren hiruhilekoetako 130 ereduaren kopia (PFEZ pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga zatika ordaintzeko autolikidazioa), urte horietako laugarren hiruhilekoei dagokien zenbatekoa zehaztu ahal izateko.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga (PFEZ) zenbatespen objektiboaren bidez (131 eredua) ordaintzen duten langile autonomoek behar den dokumentazioa edo beste frogabideren bat aurkeztu beharko dute manu honetan diru-sarrerei buruz eskatutakoa betetzen dutela egiaztatzeko.

6. Prestazioa aitortzeko eskumena duen entitate laguntzaile edo kudeatzaileak datuak egiaztatu ondoren, jasotako prestazioak erreklamatu egingo dira, baldin eta manu honetan ezarritako diru-sarreraren muga gainditzen badu langile autonomoak, edo ez badu frogatzen fakturazioa gutxienez ehuneko 75 murriztu zaiola 2020ko laugarren hiruhilekoan 2019ko denbora-tarte berean izandakoaren aldean.

Erreklamatzeko eskumena duen entitateak adieraziko du noiz sartu behar diren erreklamaturako diru kopuruak. Ez da interes edo errekar gurik erantsiko.

Ebazpenean ezarritako epea igarota, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak zorra erreklamaturako du eta dagozkion errekar guritu eta interesak ere eskatuko ditu, Gizarte Segurantzaren Diru Bilketaren Erregelamendu orokorrean diru-bilketarako ezarritako administrazio-prozedurari jarraituz (erregelamendu hori ekainaren 11ko 1415/2004 Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

7. Prestazioa jasotzen ari den bitartean, langile autonomoak kotizazio guztiak ordaindu beharko ditu Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian, dagokion kotizazio-oinarriari indarrean dauden tasak aplikatuta.

Jarduera uzteagatiko prestazioarekin batera, mutualitate laguntzaileak edo Itsasoko Gizarte Institutuak, kasuan kasukoak, jarduerarik gabe egon balitz langileak kontingentzia arruntengatik ordaindu behar zituzkeen kotizazioen zenbatekoa ordainduko dio langile autonomoari, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 329. artikuluan xedatutakoa aplikatuz (legegintzako errege-dekretu horren bidez, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onartu zen).

8. Jarduera behin betiko uzten bada 2020ko abenduaren 31 baino lehen, apartatu honetan ezarritako baldintzen mugak jarduerak iraun duen denboraren proportziokoak izango dira; ondorio horietarako, kalkulua egitean osorik zenbatuko da langilea sartuta dagoen Gizarte Segurantzako erregimenean baja hartzen den hilabetea.



9. Apartatu honetan arautzen den prestazioa ordaintzeko eskatu eta gero, langile autonomoak zilegi izango du:

Prestazioari uko egitea noiznahi, 2021eko urtarrilaren 31 baino lehen. Uko-egite horrek jakinarazi eta hurrengo hilean sortuko ditu ondorioak.

Jarduera uzteagatiko prestazioa bere kabuz itzultzea, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutualitateak edo entitate kudeatzaileak erreklamatu zain egon gabe, uste badu 2020ko laugarren hiruhilekoan izandako diru-sarrerak edo aldi horretako fakturazioaren beherakadak 2. apartatuan ezarritako atalaseak gaintutako dituztela eta ondorioz prestaziorako eskubidea galduko duela.

10. Aurreko apartatuetan ezarritakoa gorabehera, jarduera uzteagatiko prestazioa bateragarria izan ahalko da inoren konturako lanarekin. Kasu horretan baldintza hauek aplikatu beharko dira:

a) Norberaren konturako lanaren bidez lortutako diru-sarrera garbiak eta inoren konturako lanaren bidez lortutako diru-sarrerak ez dira izango lanbide arteko gutxieneko soldata halako 2,2 baino gehiago. Konputu horretan, inoren konturako lanaren bidezko diru-sarrerak ez dira izango lanbide arteko gutxieneko soldata halako 1,25 baino gehiago.

b) Prestazioaren zenbatekoa hau izango da: jardueraren arabera langileari dagokion gutxieneko kotizazio-oinarriaren % 50.

c) Eskabidearekin batera zinpeko aitortpena aurkeztuko da inoren konturako lanaren truke jasotzen diren diru-sarrerei buruz. Nolanahi ere, enpresa-ziurtagiria eta errentaren aitortpena aurkeztu beharko zaizkio prestazioa kudeatzen duen entitateari.

d) Aurreko apartatuetan xedatutakoa apartatu honetan xedatutakoaren aurkakoa ez bada aplikatuko da.

*Bosgarren xedapen gehigarria. Langile autonomoen jarduera suspertzeko Gizarte Segurantzaren arloko laguntza-neurrien jarraipenerako batzordea*

Langile autonomoen jarduera suspertzeko Gizarte Segurantzaren arloko laguntza-neurrien jarraipenerako batzordearen ardura izango da arau honen 13. eta 14. artikuluetan eta laugarren xedapen gehigarrian ezarritako neurrien jarraipena eta ebaluazioa egitea. Batzorde hori 24/2020 Errege Lege Dekretuaren seigarren xedapen gehigarriaren babesean sortu da (24/2020 Errege Lege Dekretua, ekainaren 26koa, Enplegua suspertzeko eta lan autonomoa babesteko gizarte-neurriena eta industria-sektorearen lehiakortasunarena).

*Seigarren xedapen gehigarria. Kalteberatasun ekonomikoko egoera duten zenbait kolektibok gizarte-bonua jasotzeko eskubidea izatea.*

1. Urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuak kontsumitzaile kalteberaren figura, gizarte-bonua eta etxeko kontsumitzaileentzako beste babes-neurri batzuk arautzen ditu. Bada, kontsumitzaile kalteberatzat joko dira, beren ohiko etxebizitzan eta errege-dekretu horrek jasotako baldintzetan, hornidura-puntuaren titularrak xedapen gehigarri honen 2. apartatuan ezartzen diren baldintzak betetzen dituela frogatzen dutenak xedapen gehigarri honetan ezarritakoari jarraituz eta eskabide-ereduan dagoen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuz, errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera.

Bere konturako langile edo autonomo baten ohiko etxebizitzako hornidura-kontratua pertsona juridikoaren izenean dagoenean, gizarte-bonua pertsona fisikoarentzat eskatu beharko da, eta, horretarako, aldatu egin beharko da hornidura-kontratuaren titularra.

2. Energia elektrikoaren kontsumitzaile bat artikulua honen ondorioetarako kontsumitzaile kalteberatzat jo ahal izateko, 4. apartatuan adierazitako eran frogatu beharko du hornidura-puntuaren titularra edo haren familia-unitateko kideren bat langabezian dagoela, edo ABEEE aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente batean sartuta, edo zainketak direla-eta lanaldia murriztuta dagoela, enpresaburua bada, edo diru-sarreraren galera nabarmena dakarren antzeko egoera batean, halako moldez non familia-

unitatearen guztizko diru-sarrerak honako zenbateko hauen azpitik dauden, gizarte-bonuaren eskabide osoa eta erantsi beharreko agiri guztiak aurkeztu aurreko hilean:

- hamalau ordainsariko IPREM ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren hamabirena halako 1,5, kontsumitzailea familia-unitate bateko kide ez bada edo familia-unitatean adingaberik ez badago;
- hamalau ordainsariko IPREM ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren hamabirena halako 2, familia-unitatean adingabe bat badago;
- hamalau ordainsariko IPREM ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren hamabirena halako 2,5, familia-unitatean bi adingabe badaude.

Ondorio horietarako, 35/2006 Legean xedatutakoaren arabera osatuta dagoena joko da familia-unitatez (35/2006 Legea, azaroaren 28koa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarena, eta sozietateen gaineko, ez-egoiliarren errentaren gaineko eta ondarearen gaineko zergen legeak zati batean aldatzen dituen).

Hamalau ordainsariko IPREM errenta-adierazlearen biderkatzaile horiek 0,5 igoko dira honako inguruabar berezi hauetakoren bat gertatzen denean:

- a) Kontsumitzaileak berak edo familia-unitateko kideren batek % 33ko desgaitasuna edo handiagoa aitortua izatea.
- b) Kontsumitzaileak berak edo familia-unitateko kideren batek genero-indarkeriako egoera frogatzea, indarra duen legedian ezarritakoaren arabera.
- c) Kontsumitzailea bera edo familia-unitateko kideren bat terrorismoaren biktima izatea, indarra duen legedian ezarritakoaren arabera.
- d) Kontsumitzaileak berak edo familia-unitateko kideren batek II. edo III. graduako mendekotasuna aitortua izatea, indarra duen legedian ezarritakoaren arabera.
- e) Kontsumitzaileak frogatzea guraso bakar batek eta gutxienez adingabe batek osatzen dutela familia-unitatea. Inguruabar berezi hori egiaztatze aldera soilik, merkatutzaileak familia-liburuaren eta errolda-ziurtagiriaren bidez egiaztatuko du ez dela bigarren gurasorik bizi hornidurari lotuta gizarte-bonua daukan etxebizitzan.

3. Aurreko apartatuan definitzen den kontsumitzaile kaltebera izateari utziko zaio eta, beraz, gizarte-bonua jasotzeko eskubidea azkenduko da arestian aipatutako inguruabarrak amaitzen direnean. Kontsumitzaileak horren berri eman beharko dio merkatutzaileari, hilabete igaro baino lehen.

Nolanahi ere, aurreko apartatuan definitzen den kontsumitzaile kaltebera izateari utziko zaio eta, beraz, gizarte-bonua jasotzeko eskubidea azkenduko da 2021eko ekainaren 30ean. Horrek ez du kentzen egun horren aurretik edo ondoren izaera hori lortu ahal izatea urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuan aurreikusten diren gainerako kasuetan.

Erreferentziako enpresa merkatutzaileak, aurreko apartatuan aipatutako egunaren aurretik igortzen duen azken fakturan, muga-egun hori jakinarazi beharko dio kontsumitzaileari, eta adierazi ezen epe hori igaro eta gero berak KTBPan (kontsumitzaile txikiarentzako borondatezko prezioan) fakturatuko diola, eta merkatu libreko merkatutzaile batekin kontrata dezakeela hornidura, hala nahi badu.

4. Aurreko apartatuan definitzen den gisako kontsumitzaile kaltebera dela frogatzeko eta gizarte-bonua eskatzeko, kontsumitzaileak Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren webgunean dauden eskabide-eredua eta erantzukizunpeko adierazpena bidali behar dizkio erreferentziako merkatutzaile bati, haren webgunean agertzen den helbide elektronikoaren bidez, honako egiaztagirari hauek erantsita:

- Legezko langabezia-egoeran badago, prestazioak kudeatzen dituen entitateak egindako ziurtagiria.
- Norberaren konturako langilea izanik jarduerari utzi zaiola egiaztatzeko, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak edo, hala badagokio, autonomia-erkidegoko organo eskudunak egindako ziurtagiria, interesdunak deklaraturako jarduera-uztean oinarritua.

- Hornidura-puntuaren titularraren IFZ edo AIZren kopia, eta, familia-unitate bateko kidea bada, IFZ edo AIZ eduki beharra duten kide guztien dokumentu horien kopiak.
- Errolda-ziurtagiri indarduna, banakakoa edo baterakoa, hornidura-puntuaren titularrarena edo familia-unitateko kide guztiena.
- Familia-liburua, familia-unitaterik badago.
- Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, 2. apartatuan eskatzen diren baldintzak betetzeari buruzkoa.

Erreferentziako merkaturatzaileak eskaera jaso duela baieztatzeko mezu elektronikoa bidaliko dio hornidura-puntuaren titularrari.

5. Artikulu honen babesean gizarte-bonua jasotzeko eskaerak izapidetzean kontuan hartuko dira oharpen hauek:

a) Eskaeran zerbait falta bada, erreferentziako merkaturatzaileak, eskaera jaso eta bost egun balioduneko epea igaro aurretik, kontsumitzailearengana joko du eta zein frogagiri falta diren adieraziko dio.

b) Kontsumitzailearen eskaera osoa frogagiri eta guzti jaso eta gero, erreferentziako merkaturatzaileak, bost egun balioduneko epea igaro aurretik, erreparatu beharko du ea baldintzak behar bezala frogatu diren, artikulu honetan ezarritakoari jarraituz. Ondoren, ebaluazioaren emaitza kontsumitzaileari jakinaraziko dio posta elektronikoz, edo bestela telefonoz, kontsumitzaileak bide hori aukeratu badu.

Artikulu honetan ezarritako baldintzak behar bezala frogatu direla egiaztatzeko, erreferentziako merkaturatzaileak ez du erabili beharko Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren egoitza elektronikoa eskura dagoen plataforma informatikoa, urriaren 6ko 897/2017 Errege Lege Dekretuaren 8. artikuluan aipatzen dena.

c) Frogagiriaren egiaztapenaren emaitza positiboa bada eta gizarte bonua eskatzeak merkaturatzaile-aldaketa badakar, arestian aipatutako bost eguneko epean egin beharko dira merkaturatzaile-aldaketa eta kontsumitzaile txikiarentzako borondatezko prezioa kontratuaren formalizazioa.

d) Eskaera osoa eta erantsi beharreko frogagiriak jasotzen diren fakturazio-zikloan bertan sortuko da gizarte-bonua, ziklo horren lehen egunetik aurrera.

Zazpigarren xedapen gehigarria. *Kalteberatasun ekonomikoko egoeran dauden zenbait kolektibok gizarte-bonua jasotzeko duten eskubidea bidegabeki aplikatzearen ondorioak.*

1. Baldin eta hornidura-kontratu baten titularra kalteberatasun ekonomikoko egoeran dauden zenbait kolektibok gizarte-bonua jasotzeko duten eskubideaz baliatzen bada seigarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuan aurreikusitako baldintzak bete gabe, eta kalteak eragiten baditu, kalte-galeren erantzule izango da, bai eta salbuespenezko neurriok aplikatzeak sortutako gastu guztien erantzule ere, hargatik eragotzi gabe beraren jokabide horrek ekar lezakeen beste edozein erantzukizun.

2. Ordaindu beharreko kalte, galera eta gastuen zenbatekoa ezingo da izan hornidura-kontratuaren titularrak araua aplikatuta bidegabeki lortutako etekina baino txikiagoa, eta titularrak erantzukizuna izango du, halaber, ahalegintzen baldin bada bere burua kalteberatasun ekonomikoko kasuetan egokitzen edo mantentzen, errege legedekretu honek arautzen dituen neurriak aplikatu ahal izateko.

3. Administrazioak noiznahi eskatu ahal izango du gizarte-bonua baliatu den aldi osoan baldintzak bete direla egiaztatzeko informazioa, errenta-baldintzei buruzkoa barne.

Zortzigarren xedapen gehigarria. *Hobaria, notarioen eta jabetza-erregistratzaileen arantzelen ordainketan.*

1. Mailegu-, leasing- eta renting-kontratuen nobazioa formalizatu eta inskribatzen denean, baldin eta 2020ko uztailaren 7ko 26/2020 Errege Lege Dekretuaren 18. artikulutik 23.era bitartekoetan aipatzen den moratoria aplikatzen bada kontratu horietan, notario eta

erregistratzaileen arantzel-eskubideak betiere hartzekodunak ordainduko ditu, eta ehuneko 50eko hobaria aplikatuko zaie, era honetan:

a) Hipotekaren nobazioaren eskritura egilesteko aplikatu beharreko arantzela izango da azaroaren 17ko 1426/1989 Errege Dekretuaren I. eranskinen 1. zenbakiko 1. apartatuko f) letran hipoteka-nobazioen eskrituretarako ezarritakoaren ehuneko 50 (dekretu horrek notarioen arantzela onartzen du), eta bosgarren foliotik aurrera ez da ezer ordainduko ez jatorrizko eskrituran ez kopian, izan kopia eskuetsia nahiz kopia soila. Gutxieneko arantzela 30 euro izango da eta gehienekoa 75 euro.

b) Inskripzioa egiteko aplikatu beharreko arantzela izango da azaroaren 17ko 1427/1989 Errege Dekretuaren I. eranskinen 2.1.g) artikuluan nobazio aldarazleertarako aurreikusitakoa (dekretu horrek erregistratzaileen arantzela arautzen du). Emaitzari ehuneko 50eko hobaria aplikatuko zaio. Gutxieneko arantzela 24 euro izango da eta gehienekoa 50 euro.

2. 2020ko uztailaren 7ko 26/2020 Errege Lege Dekretuaren 18. artikulutik 23.era bitartekoetan aipatzen diren mailegu-, leasing- eta renting-kontratuen ondoriozko betebeharren etenaldia polizetan formalizatzen denean, notarioak polizan esku har dezan ordaindu beharreko arantzel-eskubideak 1950eko abenduaren 15eko Dekretuan ezarritakoak izango dira, eta % 50eko hobaria izango dute. Gutxienez 25 eurokoak izango dira eta gehienez 50 eurokoak, kontzeptu guztiak sartuta, baita kopiak eta lekualdaketak ere.

2020ko uztailaren 7ko 26/2020 Errege Lege Dekretuaren 18. artikulutik 23.era bitartekoetan aipatzen diren kontratu-betebeharren etenaldia erregistroan jasotzen denean, erregistratzaileen arantzel-eskubideak 6 euroko zenbateko finkoa izango dute, 1999ko uztailaren 19ko Aginduaren bidez onartutako Ordenantzaren 36.9.g artikulurekin bat.

Xedapen iragankor bakarra. *24/2020 Errege Lege Dekretuaren lehen xedapen gehigarriaren 2. apartatuan oinarrituta dauden aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak (24/2020 Errege Lege Dekretua, ekainaren 26koa, Enplegua suspertzeko eta lan autonomia babesteko gizarte-neurriena eta industria-sektorearen lehiakortasunarena).*

Ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretuaren lehen xedapen gehigarriaren 2. apartatuan xedatutakoa oinarri baimendutako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteek indarrean iraungo dute eurak onartu dituzten berriazko edo isilbidezko ebazpenetan jasotako baldintzetan.

Hala ere, 2020ko urriaren 1etik 2021eko urtarrilaren 31ra bitartean espediente horiei aplikatzekoak izango zaizkie arau honen 2.1 artikuluan aurreikusitako salbuespen-portzentajeak, baita 4.2 eta 5.2 artikuluetan aipatzen diren mugak eta babesa ere.

Azken xedapenetako lehena. *1882ko irailaren 14ko Errege Dekretuaren bidez onartutako Prozedura Kriminalaren Legea aldatzea.*

Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera eta epemugarik gabe, aldatu egiten da 1882ko irailaren 14ko Errege Dekretuak onartutako Prozedura Kriminalaren Legearen bosgarren xedapen gehigarria, eta honela idatzita geratzen da:

«Bosgarren xedapen gehigarria. *Jarduketan berri ematea Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari eta Itsasoko Gizarte Institutuari.*

Epaitegi eta auzitegi-tako Justizia Administrazioaren letraduek Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari eta Itsasoko Gizarte Institutuari emango diete, edozein motatakoa dela ere giza hilketagatik dolozko delituagatik kriminalitatearen arrazoizko zantzuak erakusten dituen edozein ebazpen judizialen berri, baldin eta biktima ikertuaren arbaso, ondorengo, neba edo arreba, ezkontide edo ezkontide ohi bada, edo hari lotuta badago edo egon bada ezkontzaren antzeko afekzio-harreman

baten bidez. Era berean, erakunde ofizial horiei zigor-prozedurei amaiera ematen dieten ebazpen judizial irmoen berri emango diete. Jakinarazpen horiek egingo dira Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 231., 232., 233. eta 234. artikuluetan (urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutakoa), Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bateginaren 37 bis eta 37 artikuluetan (apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutakoa) eta Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera ezartzen duen maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretuaren 4., 5., 6., 7. eta 10. artikuluetan ezarritakoa betetzeko».

Azken xedapenetako bigarrena. *Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Legearen testu bategina aldatzea, irailaren 24ko 1/1993 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.*

Aldatu egiten da Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Legearen testu bateginaren 45.I.B) artikulua 30. zenbakia –testu hori irailaren 24ko 1/1993 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen–, eta honela geratzen da idatzita:

«30. Hipoteka-mailegu eta -kredituen eta hipoteka-bermerik gabeko errentamendu, mailegu, leasing eta rentingean luzamenduak formalizatzeko eskriturak, honako luzamendu hauek aplikatuz egindakoak: turismo-sektorearentzako hipoteka-luzamendua, 25/2020 Errege Lege Dekretuaren 3. artikulutik 9. artikulura arautua (25/2020 Errege Lege Dekretua, uztailaren 3koa, ekonomiaren suspertzea eta enplegua bultzatzeko premiazko neurriena), eta salgaien garraio publikoaren eta autobusezko eskatu ahalako bidaiari-garraio publikoaren sektorearentzako luzamendua, 26/2020 Errege Lege Dekretuaren 18. artikulutik 23. artikulura arautua (26/2020 Errege Lege Dekretua, uztailaren 7koa, COVID-19ak izan duen eraginari aurre egite aldera garraio- eta etxebizitza-arloko ekonomia suspertzeko neurriena)».

Azken xedapenetako hirugarrena. *Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina aldatzea, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.*

Aldatu egiten da Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina –urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua–, eta honela geratzen da idatzita:

Bat. Aldatu egiten da 351. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«351. artikulua. *Zerrenda.*

Gizarte Segurantzaren familia-prestazioak, modalitate ez-kontributiboan, honako hauek izango dira:

a) Diru-esleipen bat, onuradunak bere ardurapean duen 18 urtez beherakoa den eta ehuneko 33 edo gehiagoko desgaitasun-gradua duen seme edo alaba bakoitzeko edo adin horretatik gorakoa izan eta ehuneko 65 edo gehiagoko desgaitasun-gradua duen seme edo alaba bakoitzeko, seme-alabatasunaren legezko izaera edozein dela ere. Diru-esleipen bera jasoko da familia-harrera iraunkorraren edo adopzio-helburuko zaintzaren araubidean bere ardurapean dituen adingabeengatik, betekizun berak betez gero.

Kausatzaileak ez du galduko besteren ardurapeko seme, alaba edo adingabearen izaera bere konturako nahiz besteren konturako irabazizko lan bat egite hutsarengatik, baldin eta prestazioaren onuradunarekin bizitzen jarraitzen badu eta kausatzailearen urteko diru-sarrerak, lan-etekinen kontzeptuarenak, ez badira lanbide arteko gutxieneko soldataren ehuneko 100etik gorakoak, orduan ere urteko konputuan.

Izaera horri eutsiko zaio nahiz eta kausatzaileak langile gisa duen afiliazioak berekin ekarri hura Gizarte Segurantzaren egotea prestazioaren onuraduna afiliatuta dagoenaz beste araubide batean.

b) Seme edo alaba bat jaio edo adoptatzeagatik oroharreko prestazio ekonomiko bat, ordainketa bakarrekoa, familia ugarietzat, guraso bakarrek familiantzat edo desgaitasuna duten ama edo aitentzat.

c) Erditze edo adopzio anizkoitzengatik ordainketa bakarrek prestazio ekonomiko bat».

Bi. Aldatu egiten da 352. artikulua 2. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«2. Halaber, honako hauek berengatik gurasoei legokiekeen esleipenaren onuradun izango dira, kasua bada:

a) Aita- eta ama-zurtz direnak, 18 urtetik beherakoak izan eta ehuneko 33ko edo hortik gorako desgaitasuna badute, edo adin horretatik gorakoak izan eta ehuneko 65eko edo hortik gorako desgaitasuna badute.

b) Umezurtz ez baina euren gurasoek abandonatu dituzten pertsonak, 351. artikuluko a) letran azaltzen diren inguruabarrak biltzen badituzte eta familia-harrera iraunkorraren edo adopzio-helburuko zaintzaren araubidean ez badaude.

c) 18 urtetik gorakoak izan eta desgaitasuna duten seme-alabak, gaitasuna judizialki aldatua ez badute eta jarduteko gaitasunari eusten badiote, beren gurasoei berengatik legozkiekeen diru-esleipenen onuradunak izango dira».

Hiru. Aldatu egiten da 354. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«354. artikulua. *Desgaitasun-gradua eta beste pertsona baten laguntza-premia zehaztea.*

Gobernuak errege-dekretu bidez onartuko duen baremoa aplikatuz zehaztuko dira bai desgaitasun-gradua –norberaren ardurapean dagoen seme, alaba edo adingabe bakoitzeko esleipenen aitopenen ondorioetarako– eta bai mendekotasun-egoera eta beste pertsona baten laguntza-premia –aurreko artikulua 2. apartatua aipatua–».

Lau. Aldatu egiten da 355. artikulua 1. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Onuradun orok bere familian gertatutako aldaketen berri eman behar du, baldin eta horiek kontuan hartu behar badira eskubidearen sorrera, aldaketa edo azkentzearen ondorioetarako.

Inolaz ere ez da beharrezkoa izango agiri bidez frogatzea Gizarte Segurantzaren Administrazioak berak zuzenean ezagutu beharreko alderdiak edo inguruabarrak; besteak beste, pentsioen eta subsidioen zenbatekoa».

Bost. Aldatu egiten da VI. tituluko I. kapituluko 3. atalaren izenburua; hona nola geratzen den idatzita:

«3. atala. Seme edo alaba bat jaio edo adoptatzeagatik prestazio ekonomikoa, familia ugarietzat, guraso bakarrek familiantzat edo desgaitasuna duten ama edo aitentzat».

Sei. Aldatu egiten da 357. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«357. artikulua. *Prestazioa eta onuradunak.*

1. Espainian seme edo alaba bat jaio edo adoptatzen bada familia ugari batean, edo, arrazoi hori tarteko, familia bat familia ugari bihurtzen bada, edo guraso bakarrek familia bada, edo amak edo aitak gutxienez ehuneko 65eko desgaitasun-gradua badu, familia horrek eskubidea izango du Gizarte Segurantzaren sistemako

prestazio ekonomiko bat jasotzeko, atal honetan ezarritako zenbatekoaren eta baldintzen arabera.

2. Familia ugaria izatearen ondorioetarako, Familia Ugariak Babesteko Legean ezarritakoari begiratuko zaio.

Guraso bakarreko familia hau da: guraso bakar batek osatutakoa, jaiotako edo adoptatutako umea harekin bizi bada eta bera bada familiari eusten dion bakarra.

3. Aitak, amak edo, halakorik ezean, erregelamenduz ezartzen den pertsonak, prestazioaren onuradun izateko, 352.1 artikuluko a) eta c) letretan ezarritako baldintzak bete behar ditu eta, gainera, haren urteko diru-sarrerak, edozein motatakoak direla ere, urtean ezin dira izan urteko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean ezartzen den zenbatekotik gorakoak.

Zenbateko horri ehuneko 15 gehituko zaio norberaren ardurapeko seme, alaba edo adingabe bakoitzeko, bigarrenetik aurrera, bigarrena barne.

Gehieneko diru-sarrerak zehazteko soilik, norberaren ardurapeko seme edo alabatza 18 urtez beherakoa joko da, edo gutxienez ehuneko 65eko desgaitasuna duen adin horretatik gorakoa, baita familia-harrera iraunkorraren edo adopzio-helburuko zaintzaren araubidean norberaren ardurapean dauden adingabeak ere.

Aurrekoa gorabehera, familia ugariko kide izanez gero Familia Ugariak Babesteari buruzko azaroaren 18ko 40/2003 Legean xedatuari jarraituz, prestaziorako eskubidea izango da, halaber, urteko diru-sarrerak ez badute gaintzen 40/2003 Legearen arabera norberaren ardurapeko hiru seme-alaba dauden kasuetarako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak ezartzen duen zenbatekoa. Zenbateko hori lege berak zehazten duen neurrian igoko da laugarren seme edo alabatik aurrera, laugarrena barne.

Bi gurasoak elkarrekin bizi badira, bien diru-sarreraren batura aurreko paragrafoetan diru-sarreretarako ezarritako mugatik gora badago, haietako bati ere ez zaio aitortuko onuradun izaera.

Apartatu honek aipatzen dituen urteko diru-sarreraren mugak urtero gaurkotuko dira Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean, aurreko ekitaldian ezarritako zenbatekoari dagokionez, gutxienez ere lege horretan Gizarte Segurantzaren pentsio kontributiboaren gehikuntza orokorrerako ezartzen den portzentaje berean».

Zazpi. Aldatu egiten da 358. artikulua 2. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Jasotako urteko diru-sarrerak, edozein motatakoak, 357.3 artikuluan ezarritako mugatik gorakoak izanik ere, muga horren eta prestazioaren zenbatekoaren batura baino gutxiago badira, prestazioaren zenbatekoa onuradunak jasotako diru-sarreraren eta aipatutako baturaren emaitzaren arteko aldea izango da.

Ez da aitortuko prestaziorako eskubidea aurreko paragrafoan aipatzen den aldea txikiagoa denean Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean ezarritakoa baino».

Zortzi. Aldatu egiten da 359. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«359. artikulua. *Onuradunak.*

Espanian gertatutako erditze edo adopzio anizkoitzagatik prestazio ekonomikoaren onuradun izango dira 352.1 artikulua a) eta c) letretan ezarritako betekizunak betetzen dituzten pertsonak (aita edo ama edo, halakorik ezean, erregelamenduz ezartzen den pertsona).

Jaiotakoak edo adoptatutakoak bi edo gehiago direnean joko da erditzea edo adopzioa anizkoitza dela».

Bederatzi. Aldatu egiten da 361. artikulua 3. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«3. Norberaren ardurapean seme edo alabaren bat edukitzeagatik diru-esleipenak jasotzea bateraezina izango da seme-alabak modalitate ez-kontributiboko baliaezintasun- edo erretiro-pentsioa jasotzearekin».

Azken xedapenetako laugarrena. *11/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea (11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, Gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituena COVID-19ari aurre egiteko).*

Aldatu egiten da 11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, Gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituena COVID-19ari aurre egiteko. Hona aldaketak:

Bat. Honela geratzen da idatzita 1. artikulua 1. apartatua:

«1. Alarma-egoera amaituta epemuga eta epe prozesal guztien etendura kendu ondoren, utzarazpen-prozedura (Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legeak arautzen duena) izapidetu behar bada Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legea aplikatzen zaion etxebizitzaren errentamendu-kontratu bat dela eta, eta errentariak epaitegian frogatzen badu ezin duela aurkitu beste bizilekurik beretzat eta berarekin bizi diren pertsonentzat COVID-19aren hedapenaren ondorioz dagoen egoera sozial edo ekonomikoa dela eta, Justizia Administrazioaren letraduak horren berri emango die gizarte-zerbitzu eskudunei, eta botatzeko egintzaren ezohiko etendura hasiko da. Botatzeko eguna jarrita ez badago, 440.3 artikuluan aipatzen den hamar eguneko epealdia amaitu ez delako edo ikustaldia egin ez delako, epealdi hori eten egingo da edo ikustaldia atzeratu gizarte-zerbitzu eskudunek erabakitzen dituzten neurriak ezarri arte; etendura horrek gehienez 2021eko urtarrilaren 31ra arte iraungo du».

Bi. Honela idatzita geratzen da 2. artikulua:

«2. artikulua. *Ohiko etxebizitzaren errentamendu-kontratuen aparteko luzapena.*

Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legea aplikatzen zaien ohiko etxebizitzaren errentamendu-kontratuetan, baldin eta errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik 2021eko urtarrilaren 31ra arteko aldiari amaitzen bada aurreko lege horren 9.1 artikuluan ezartzen den nahitaezko luzapena edo 10.1 artikuluan ezartzen den isilbidezko luzapena, errentamendu-kontratuaren iraunaldiari aparteko luzapena aplikatu ahal izango zaio, errentariak eskatu ondoren, sei hilabetekoa gehienez, eta, aldi horretan, indarrean dagoen kontratuan ezarritakoa eta bertan finkatutako baldintzak aplikatuko dira, ordura arte bezala. Errentatzaileak onartu egin beharko du aparteko luzapen horren eskaera, salbu eta alderdien artean beste arau edo baldintza batzuk adostu badira, edo errentatzaileak jakinarazi badu, Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legeak 9.3 artikuluan ezartzen dituen epeak eta baldintzak betez, errentan emandako etxebizitzaren beharra duela etxebizitza iraunkorra izan dadin beretzat edo odoleko lehen graduko senitartekoentzat nahiz adopziozko senitartekoentzat, edo ezkontidearentzat, ezkontzaren banantzea, dibortzioa edo deuseztasuna deklaratzeko duen epai irmoa dagoenean».

Hiru. Honela geratzen da idatzita 4. artikulua 1. apartatua:

«1. Baldin eta Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legearen babesean ohiko etxebizitza bat alokatzeko sinatutako kontratu batean errentaria kalteberatasun ekonomikoko egoeran badago –hurrengo artikuluan definitzen den moduan– eta errentatzailea etxebizitzaren arloko enpresa edo entitate publikoa



bada, edo edukitzaile handia bada (hau da, pertsona fisiko edo juridiko bat hiri-lurreko hamar ondasun higiezin baino gehiagoren titularra dena, garaje eta trastelekuak kanpo utzita, edo 1.500 m<sup>2</sup>-tik gorako eremu eraiki baten titularra dena), 2021eko urtarrilaren 31ra arte errentariak errentatzaileari eskatu ahal izango dio errentaren ordainketa aldi batez eta salbuespenez geroratzeko; nolana ere, hori eskatzeko, ezinbestekoa izango da bi alderdiak lehendik adostuta ez edukitzea ordainketa geroratzera edo ordaindu beharreko kopuru osoa edo zati bat barkatzea».

Azken xedapenetako bosgarrena. *Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera ezartzen duen maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

Bat. Aldatu egiten da 4. artikulua 1. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Honako hauek izan daitezke bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren onuradun:

a) Errege lege-dekretu honetan ezarritako eran bizikidetzaren unitate bateko kide diren pertsonak.

b) 23 urte edo gehiago eta 65 baino gutxiago dituzten pertsonak (edo zaharragoak, erretiro-pentsiorik ez badute), bakarrik bizi badira, edo, 6.3 artikulua lehen paragrafoan azaltzen diren kasuetan, bizikidetzaren unitate batekin etxe berean bizi baina unitate horretako kide ez badira, eta, gainera, baldintza hauek betetzen badituzte:

1.a Beste pertsona batekin ezkondu edo izateko bikote gisa lotuta ez egotea, edo banantze- edo dibortzio-izapideak hasi dituztenak izatea edo erregelamendu bidez zehazten diren beste egoera batzuetan daudenak izatea, horiei ez baitzaie eskatuko baldintza hau betetzea.

2.a Beste bizikidetzaren unitate bateko kide ez izatea, errege lege-dekretu honetan aurreikusitakoaren arabera.

Genero-indarkeriaren edo gizakien salerosketaren eta sexu-ustiapenaren biktimak diren emakumeei ez zaie eskatuko adinaren baldintzak betetzea, ezta letra honen 1. eta 2. zenbakietan aurreikusitakoak ere».

Bi. Aldatu egiten da 5. artikulua 2. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Titularrek, bizikidetzaren unitate bateko kide direnean, gutxienez 23 urte izan beharko dituzte, edo adindunak edo adingabe emantzipatuak izan beharko dute, seme-alabak edo adingabeak familia-harrera iraunkorraren edo adopzio-helburuko zaintzaren araubidean izanez gero.

Bizikidetzaren unitate bateko kide izan ezean, titularrak gutxienez 23 urte eduki beharko ditu, salbu eta genero-indarkeria edo gizakien salerosketa eta sexu-ustiapena jasandako emakumeen kasuan, horrelakoetan titularra adinduna izatea eskatuko baita».

Hiru. Aldatu egiten da 6. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«6. artikulua. *Bizikidetzaren unitatea.*

1. Egoitza berean bizi diren pertsona guztiek osatzen dutena hartzen da bizikidetzaren unitate gisa, baldin eta elkarrekin lotuta badaude ezkondu daudelako edo izateko bikotea direlako, edo bigarren mailarainoko odol-ahaidetasun, ezkontza-ahaidetasun edo adopzioko lotura badute, edo adopzio-helburuko zaintza edo familia-harrera iraunkorra dela eta elkarrekin bizi badira.

Artikulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, bi urte lehenagotik gutxienez ezkontzaren antzeko afektu-harremanean eratutako bikotea hartuko da izateko bikotetzat, hura eratzeko dutenek ezkondu ezinik ez dutelarik ez badute beste inorekin ezkontza-loturarik eta bizikidetzaren egonkor eta agerikoa izan badute prestazioa eskatu aurreko bost urteko epean gutxienez etenik gabe.

Bizikidetzta-unitatea osatzen duten pertsonetako baten heriotzak ez du aldatuko bizikidetzta-unitatearen izaera, nahiz eta aurreko apartatuan aurreikusitako loturak galtzea ekarri heriotza horrek.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoaren salbuespen gisa, honako hauek ere bizikidetzta-unitatetzat hartuko dira arau honetan aurreikusitako ondoretarako:

a) Genero-indarkeriaren biktima den pertsona batek osatutakoa, baldin eta ohiko familia-etxebizitza utzi badu, seme-alabekin edo adopzioarako edo familia-harrera iraunkorrerako zaintza-erregimenean dauden adingabeekin batera eta odolkidetasuneko edo ezkontza- edo adopzio-ahaidetasuneko bigarren mailarainoko senideekin batera.

b) Seme-alabekin batera edo adopzioarako edo familia-harrera iraunkorrerako zaintza-erregimenean dauden adingabeekin batera dagoen eta banantze- edo dibortzio-izapideak hasi dituen pertsona batek eta bigarren mailarainoko odolkidetasuneko edo ezkontza- edo adopzio-ahaidetasuneko senideek osatutakoa.

c) Etxe berean bizi diren, gutxienez 23 urte dituzten eta manu honetan aipatutako loturetako bat ere elkarrekin ez duten bi pertsonak edo gehiagok osatutakoa, baldin eta haietako batek, gutxienez ehuneko 65eko edo hortik gorako desgaitasuna izanik, baliaezintasuneko kotizazio gabeko pentsiorik edo ezintasun iraunkorreko pentsiorik ez badu, edo 65 urte baino gehiago izan eta ez kotizaziopeko eta ez kotizazio gabeko erretiro-pentsiorik ez badu, edo bere autonomia-erkidego edo toki-entitateko organo eskudunak bazterketa-egoeran dagoena dela deklaratu badu; erregelamendu bidez zehazten diren eta etxe berean elkarrekin bizitzea beharrezkoa den beste egoera batzuk ere sartzen dira hor.

3. Pertsona batek etxebizitza partekatzen badu elkarrekin ahaidetasunezko edo antzeko loturak dituzten pertsonak osatutako bizikidetzta-unitate batekin, pertsona hura ez da, prestazioaren ondorioetarako, unitate horretako kide, eta bereiz hartuko dira ahaidetasunezko edo antzeko lotura duten kideek osatutako bizikidetzta-unitatea, batetik, eta norbanako onuraduna, bestetik, azken horrek 4.1.b) artikuluko baldintzak betetzen baditu.

Elkarrekin ahaidetasunezko edo antzeko loturarik ez duten pertsona batzuk eta elkarrekin ahaidetasunezko edo antzeko loturak dituzten pertsonak osatutako bizikidetzta-unitate bat etxe batean bizi badira, bi bizikidetzta-unitate daude: elkarrekin loturarik izan gabe aurreko apartatuan adierazitako baldintzak betetzen dituzten pertsonak osatutakoa, eta ahaidetasunezko edo antzeko lotura dutenek osatutakoa.

4. Ikasketak, lana, tratamendu medikoa, errehabilitazioa edo antzeko arrazoiak direla-eta aldi baterako banantzeak ez dakar bizikidetzta amaitzea.

Horren harira, Espainian benetan, legez eta modu jarraituan bizitzea da bizikidetzta-unitateko kideztzat hartzeko betekizuna.

5. Inor ezin da izan inola ere bi bizikidetzta-unitatetan edo gehiagotan.

6. Gutxienez adingabe batek edo desgaitasuna duen pertsona batek osatutako bizikidetzta-unitate batek etxebizitzaren zati jakin bat berak bakarrik erabiltzen duela egiaztatuz gero –titulu juridikoa edo kasuan kasuko gizarte-zerbitzuen ziurtagiria dela medio–, bizilekutzat joko da erabilerara eskusiboko gune hori errege lege-dekretu honetan aurreikusitako ondorioetarako.

7. Kontratu baten bitartez egiaztatzen baldin bada pertsona batek nahiz bizikidetzta-unitate batek gela bat beretzat hartua duela ostatu edo antzeko establezimendu batean, gela hori bizilekutzat joko da arau honetan aurreikusitako ondorioetarako.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa ez zaie aplikatuko elkarrekin bizi direnek bizilekuaren edo bizilekuko zona jakinen erabilerari buruz kontraprestazio ekonomikorik gabe egindako itun edo akordioei».

Lau. Aldatu egiten da 7. artikulua 2. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera eskatzen duten egunean 30 urtetik beherakoak izanez gero, 4.1.b) artikuluan aipatzen diren onuradunek frogatu beharko dute Espainian modu independentean bizi izan direla egun horren aurreko hiru urtean gutxienez.

Aurreko paragrafoaren ondoretarako, pertsona bat modu independentean bizi izan dela iritzeko, pertsona horrek frogatu behar du gurasoen, tutoreen edo harreraren izan dutenen etxetik kanpo bizi izan dela eskaera egin aurreko hiru urtean, eta gutxienez hamabi hilabetez, modu jarraituan nahiz etenekin, alta emanda egon dela Gizarte Segurantzaren sistema osatzen duten erregimenetako edozeinetan –Estatuko klase pasiboena barne– edo norberaren konturako langileen edo autonomoen Gizarte Segurantzako araubide bereziaren ordezkoko gizarte-aurreikuspeneko mutualitate batean.

Eskaera aurkezten duten egunean 30 urtetik gorakoak izanez gero, 4.1.b) artikuluan aipatzen diren onuradunek frogatu beharko dute Espainian gurasoen, tutoreen edo harreraren izan dutenen etxetik kanpo izan dutela bizilekua egun horren aurreko urtebetean.

Aurreko paragrafoetan ezarritako betekizunak ez zaizkie eskatuko genero-indarkeriaren biktima izateagatik ohiko bizilekua utzi duten pertsonari, banandu edo dibortziazeko izapideak hasi dituztenei edo erregelamendu bidez zehazten diren beste goera batzuetan daudenei».

Bost. Aldatu egiten da 8. artikulua 3. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«3. Betekizun hori ez dela betetzen iritziko zaio, baldin eta, errege lege-dekretu honen 18. artikuluan jasotzen diren irizpideen arabera, onuradun indibidual batentzat bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren bidez bermatutako errentaren zenbatekoaren hiru halako edo gehiagoko balioa duen ondare baten titularrak bada onuradun indibiduala. Bizikidetzaren kasuan, betekizun hori ez dela betetzen iritziko zaio II. eranskinean ageri den gehikuntza-eskala aplikatuta ateratzen den zenbatekoaren pareko edo gehiagoko ondare baten titularrak direnean.

Era berean, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera jasotzeko aukerarik gabe geratuko dira, ondarearen balorazioa alde batera utzita, onuradun indibidualak edo bizikidetzaren unitate bat osatzen duten kideak, jarduera eten ez duen merkataritza-sozietate bateko zuzenbideko administratzaile bada bizitza-unitateko kideetako edozein».

Sei. Aldatu egiten da 10. artikulua 2. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«2. Aurreko apartatuan adierazitako ondoretarako, honako hauek hartuko dira errenta bermatutzat:

a) Onuradun indibidualen kasuan, hileko errenta bermatuaren zenbatekoa Estatuko Aurrekontu Orokorraren Legearen urtero finkatutako pentsio ez-kontributiboaren urteko zenbatekoaren hamabiren bat izango da.

b) Bizikidetzaren kasuan, a) letrako hileko zenbatekoa ehuneko 30 handituko da kide bakoitzeko, bigarrenetik aurrera, eta gehienez ere ehuneko 220 arte.

c) Bizikidetzaren unitatea guraso bakarrekoa bada, b) letran ezarritako hileko zenbatekoari guraso bakarrekoa izateagatik osagarri bat gehituko zaio: a) letran ezarritako zenbatekoaren ehuneko 22koa. Prestazioaren zenbatekoa zehazteko, guraso bakarrekoko bizikidetzaren unitateak hau hartuko da: heldu bakar batek eta harekin bizi den eta haren zaintza eta jagoletza eskusiboaren pean dagoen bigarren gradurainoko ondorengo adingabe batek edo gehiagok osatutakoa; edo heldu bakar batek eta haren kargura familia-harrera iraunkorraren edo adopzio-helburuko zaintzaren pean dagoen adingabe batek edo gehiagok osatutakoa, heldu hori bada adingabe hori edo horien harreragile edo zaintzaile bakarra, edo beste guraso,

zaintzaile edo harreragilea espetxean edo ospitalean badago urtebetean edo luzaroago etenik gabe.

Aurreko paragrafoan aipatutako ondorengoak edo adingabeak gurasoekin bakarrik bizi direnean, edo aitona-amona, zaintzaile zein harreragileekin bakarrik bizi direnean, osagarri bera aitortuko da, baldin eta adingabeekin bizi diren horietako batek 3. graduko mendekotasuna, ezintasun iraunkor absolutua edo baliaezintasun handia aitortuta badauka. Hau ere guraso bakarreko bizikidetz-unitatetzat hartuko da, aipatutako osagarria jasotzeari begira: Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren arabera genero-indarkeria jasan duen emakume batek eta haren zaintzaren eta jagoletzaren pean dauden bigarren gradurainoko ondorengo adingabe batek edo gehiagok bakarrik osatutakoa, edo, kasua bada, lege organiko horren arabera genero-indarkeria jasan duen emakume batek eta familia-harrera iraunkorraren edo adopzio-helburuko zaintzaren araubidean harekin dagoen adingabe batek edo gehiagok bakarrik osatutakoa».

Zazpi. Aldatu egiten dira 13. artikulua 1. eta 2. apartatuak, eta honela idatzita geratzen dira:

«1. Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren onuradunaren edo bizikidetz-unitateko kideren baten inguruabar pertsonalak aldatuz gero, prestazio ekonomikoa murriztu edo handitu ahal izango da, entitate kudeatzaileak dagokion berrikuspena eginda.

2. Inguruabar pertsonalak aldatuta, hurrengo hilaren lehen egunetik aurrera izango ditu ondorioak aldaketa horrek, eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 129. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da (testu bategin hori urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen)».

Zortzi. Aldatu egiten da 16. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«16. artikulua. *Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren eta ardurapeko seme, alaba edo adingabe bakoitzeko diru-esleipenaren arteko bateraezintasuna.*

Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazioa jasotzea bateraezina izango da desgaitasunik ez duen edo ehuneko 33 baino gutxiagoko desgaitasuna duen norberaren ardurapeko seme, alaba edo adingabe bakoitzeko diru-esleipena jasotzearekin kausatzaileak edo onuradunak berberak direnean.

Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren zenbatekoa aurreko paragrafoan aipatutako ardurapeko seme, alaba edo adingabe bakoitzeko diru-esleipenarena baino handiagoa denean, bizitzeko gutxieneko diru-sarrerarako eskubidea aitortuko da. Aitorpen hori egiteaz batera, ardurapeko seme, alaba edo adingabe bakoitzeko diru-esleipenerako eskubidea azkendu egingo da.

Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren zenbatekoa ardurapeko seme, alaba edo adingabe bakoitzeko diru-esleipenarena baino txikiagoa izan eta interesdunak lehenengo hautatzen duenean, hura aitortzeaz batera, azkendu egingo da ardurapeko seme, alaba edo adingabe bakoitzeko diru-esleipenerako eskubidea. Ardurapeko seme, alaba edo adingabe bakoitzeko diru-esleipena hautatzen badu, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren eskaera ezetsiko zaio arrazoi horrengatik».

Bederatzi. Aldatu egiten da 34. artikulua 3. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«3. Arau-hauste astunak dira:

a) Betekizunak egiaztatzeko eta prestazioa kobratzen segitzeko –eta jakinarazpenak eta komunikazioak jasotzen direla bermatzeko– behar diren dokumentuak eta informazioa ez ematea, horrek bidegabeko kobrantza bat eragin duenean, hilean dagokionaren ehuneko 50ekoa edo hori baino txikiagoa.

b) Prestazioa aldatzea, etetea edo azkentzea ekar dezakeen edozein aldaketa edo egoeraren berri ez ematea horiek gertatzen direnetik hogeita hamar eguneko epean, baldin eta horren ondorioz bidegabeko kobrantza gertatu bada, hilean dagokionaren ehuneko 50ekoa edo hori baino txikiagoa.

c) Hirugarren aldiz egitea arau-hauste arina, baldin eta pertsona hori aurreko urtebetean zehatua bada mota bereko bi falta arinengatik.

d) Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioak sustatzen dituen gizarteratze-estrategietan parte hartzeko betebeharra ez betetzea ezartzen den moduan.

e) Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazioa lanaren edo jarduera ekonomikoaren errentekin bateragarria izateko baldintzak ez betetzea 8.4 artikuluan ezarritakoaren arabera».

Hamar. Aldatu egiten da 35. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«35. artikulua. *Zehapenak.*

1. Aurreko artikuluan tipifikatutako arau-hausteengatik gutxieneko zehapena, erdiko zehapena eta gehieneko zehapena ezarri ahal izango dira.

Zehapenak ezartzean, kontuan hartuko da zein mailatakoak izan behar duten, aintzat hartuz, horretarako, arau-hauslea erruduna den, zabarkeriaz jokatu duen eta arau-haustea nahita egin duen, bai eta prestazio ekonomikotik bidegabeki jasotakoa zenbat den ere.

2. Arau-hauste arinak arau-hausleari ohartarazpena eginez zehatuko dira.

3. Arau-hauste astunak prestazioa gehienez ere hiru hilabeterako kenduz zehatuko dira.

Arau-hauste astunak prestazioa hilabeterako kenduz zehatuko dira gutxieneko mailan, bi hilabeterako erdiko mailan, eta hiru hilabeterako gehieneko mailan.

Arau-hausteak eskubidea azkentzea dakarrenean, hiru hileko prestazioa itzuli behar izatea izango da zehapena.

4. Arau-hauste oso astunak prestazioa gehienez ere sei hilabeterako kenduz zehatuko dira.

Arau-hauste oso astunak prestazioa lau hilabeterako kenduz zehatuko dira gutxieneko mailan, bost hilabeterako erdiko mailan, eta sei hilabeterako gehieneko mailan.

Arau-hausteak eskubidea azkentzea dakarrenean, sei hileko prestazioa itzuli behar izatea izango da zehapena.

Arau-haustea aurreko artikuluen 4.c) apartatuan adierazitakoa bada, atzerrian egondako denboran bidegabeki jasotako prestazioaren zenbatekoa itzultzeaz gain, onuradunek ezin izango dute eskatu beste prestazio bat sei hilabetez, zehapena ezartzen duen ebazpenaren egunetik hasita.

5. Baldin eta, arau-hauste astunetan edo oso astunetan, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren onuradunek hauetakoren bat egiten badute:

a) diru-sarreraren edo ondarearen aitorpena faltsutzea,

b) prestazioa aldatzea, etetea edo azkentzea ekar dezaketen funtsezko aldaketak ezkutatzea iruzur egiteko asmotan,

c) iruzurrezko beste edozein egintza edo egoera, baldin eta haren bitartez prestazioa bidegabeki eskuratzen bada, prestaziorako eskubideari bidegabeki eusten bazaio edo prestazioaren zenbatekoa bidegabeki handitzen bada,

zehapenaz eta bidegabeki jasotako diru kopuruak itzuli beharraz gainera, eta ezertan galarazi gabe sortzen diren erantzukizun penal, zibil eta administratiboak, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak dekretatu ahal izango du eskubidea azkendu egin dela eta arau-hauslea ezin dela arau honetan ezarritako moduan onuradun izan bi urte igaro arte.

6. Baldin eta, arau-hauste oso astun baten aurreko bost urteetan, administrazio-bideko ebazpen irmoz arau-hausleari zehapena ezarri badiote arau-hauste oso astun bat egiteagatik, prestazioa azkendu egingo da eta bost urte igaro arte arau-hauslea ezingo da onuradun izan arau honetan ezarritako moduan.

7. Artikulu honetan aipatutako zehapenak gorabehera, itzuli egin beharko dira bidegabeki jasotako zenbatekoak».

Hamaika. Aldatu egiten da hirugarren xedapen iragankorra, eta honela idatzita geratzen da:

«Hirugarren xedapen iragankorra. *Errentarik ez izateagatik egindako eskaerei aplikatu beharreko salbuespenezko araubidea.*

Salbuespenez, norbera langabezia-prestazio edo -sorospenen onuradun ez denean, eta errentak konputatzearen ondorio hutsetarako, eskaerak 2021eko abenduaren 31ra arte aurkeztu ahal izango dira, urtean zehar kalteberatasun ekonomikoa suertatu den kasuetan.

Errenten baldintza behin-behinean egiaztatze aldera, bizikidetz-unitateak urte hasieratik izan dituen diru-sarreraren zati proportzionala hartuko da kontuan, baldin eta horrek ez badu gainditzen aipatutako bizikidetz-unitatearentzat arau orokor gisa ondare garbiari dagokionez ezarrita dauden mugen erdia, eta diru-sarrerek ez badituzte gainditzen ehuneko 50etik gora bizikidetz-unitate guztiarentzat ezarritako mugak, zerga-administrazioek nahikoa informazio daukaten azken zerga-ekitaldiari dagokion informazioaren arabera, errege lege-dekretu honetan ezarritako eran. Kasu horretan, egoera hori egiaztatzeko aukera ematen duten Gizarte Segurantzaren fitxategietako eta datu-baseetako datuak hartu ahal izango dira gauden urteko diru-sarreraren erreferentziazat, edo, bestela, erantzukizunpeko adierazpenean agertzen dena.

Nolanahi ere, hurrengo urtean erregularizatu egingo dira ordaindutako zenbatekoak, onuradun indibidualak edo bizikidetz-unitateko kide guztiek prestazioa onartu zen ekitaldian izandako urteko diru-sarrera eta errenta konputagarrien hileko batez besteko datuei erreparatuta emanak, zerga-administrazioek daukaten informazioaren arabera. Horrek, kasua bada, bide emango die errege lege-dekretuaren 17. artikuluan aurreikusitako jarduketei».

Hamabi. Aldatu egiten da zazpigarren xedapen iragankorra, eta honela idatzita geratzen da:

«Zazpigarren xedapen iragankorra. *Norberaren ardurapeko seme-alaba edo adingabeengatiko esleipena bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren txertatzea.*

Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera, ezin izango da beste eskaerarik aurkeztu desgaitasunik ez duen edo Gizarte Segurantzaren sistemaren ehuneko 33tik beherako desgaitasuna duen ardurapeko seme, alaba edo adingabeengatiko diru-esleipenerako, esleipen hori azkendu egingo baita, hirugarren paragrafoan aurreikusitakoaren kalterik gabe. Hala ere, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazio ekonomikoa iragankorraren onuradunek, 2020ko abenduaren 31n ez badituzte betetzen bizitzeko gutxieneko diru-sarrera jasotzeko betekizunak, hautatzeko eskubidea erabili ahal izango dute, eta berriro heldu beren ardurapeko seme-alaba edo adingabeengatiko diru-esleipenari Gizarte Segurantzaren sisteman.

Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen den egunean, desgaitasunik ez duen edo ehuneko 33tik beherako desgaitasuna duen beren ardurapeko seme, alaba edo adingabe bakoitzeko egiten den diru-esleipenaren onuradunek prestazio hori jasotzen jarraituko dute betekizunak betetzei utzi eta prestazioa azkendu arte.

Arau hau indarrean jarri aurretik aurkeztutako eskabideak aurkezteko unean indarrean zegoen arauak arautuko ditu, salbu eta urteko diru-sarreraren mugak eguneratzei dagokionez; eguneratze horretarako aplikatu beharreko arauak

honako prestazio honi dagozkionak izango dira: familia ugarietzat, guraso bakarreko familientzat eta desgaitasuna duten ama edo aitentzat seme edo alaba bat jaiotzeagatik edo adoptatzeagatik ematen den prestazio ekonomikoa.

Errege lege-dekretu hau indarrean jarri osteko hogeita hamar egun naturaletan aurkezten diren eskabideetan, alegatzen baldin bada eskabidea ezin izan dela lehenago aurkeztu administrazio-epeak etenda egon direlako 463/2020 Errege Dekretuaren indarrez (463/2020 Errege Dekretua, martxoaren 14koa, COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duena), eskatzaileak adieraziko du zer egunetan nahi eta ezin izan zuen bere eskubidea baliatu, eta eskabidea egun horrexetan aurkeztutzat joko da».

Azken xedapenetako seigarrena. *Eskumen-titulua.*

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioaren 149. artikulua 1. apartatuko 7., 8., 13., 17. eta 25. zenbakietan xedatutakoaren babesean ematen da. Zenbaki horietan honako gai hauen gaineko eskumen osoa ematen zaio Estatuari, hurrenez hurren: lan-legeria; legeria zibila eta erregistro eta agerkari publikoen antolakuntza; jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa; Gizarte Segurantzaren gaineko oinarrizko legeria eta araubide ekonomikoa; eta energiaren araubidearen oinarriak.

Azken xedapenetako zazpigarrena. *Indarrean jartzea.*

Errege lege-dekretu hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean.

Madriren, 2020ko irailaren 29an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,  
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN

## ERANSKINA

**Bereziki eragindako enpresek, lehenengo xedapen gehigarriaren 2. apartatuan definituek, EJSN-09 sailkapenean dituzten kodeak**

EJSN-09 ID	EJSN-09 4 DIGITU
0710	Burdina-meak ateratzea.
2051	Lehergaiak fabrikatzea.
5813	Egunkariak argitaratzea.
2441	Metal bitxiak ekoiztea.
7912	Operadore turistikoen jarduerak.
7911	Bidaia-agentzien jarduerak.
5110	Bidaiarien aireko garraioa.
1820	Euskarri grabatuen erreprodukzioa.
5122	Espazioko garraioa.
4624	Larruen handizkako merkataritza.
7735	Aireko garraiobideak alokatzea.
7990	Beste erreserba-zerbitzu batzuk eta horiekin lotutako jarduerak.
9004	Ikuskizun-aretoak kudeatzea.
7729	Bestelako gauzaki pertsonal eta etxean erabiltzeko artikuluak alokatzea.
9002	Arte eszenikoei lotutako jarduera osagarriak.
4741	Ordenagailuen, tresna periferikoen eta programa informatikoen txikizkako merkataritza saltoki espezializatuetan.
3220	Musika-tresnak fabrikatzea.
3213	Imitaziozko bitxiak eta antzeko artikuluak fabrikatzea.
8230	Biltzarrak eta erakustazokak antolatzea.
7722	Bideokaseteak eta diskoak alokatzea.
5510	Hotelak eta antzeko ostatuak.
3316	Konponketa eta mantentze-lan aeronautiko eta espazialak.
1811	Arte grafikoak eta horiekin lotutako zerbitzuak.
5520	Ostatu turistikoak eta egonaldi laburreko beste ostatu batzuk.
4939	Beste inon sailkatu gabeko lehorreko bidaiari-garraio motak.
5030	Barneko bide nabigagarrietako bidaiari-garraioa.
1812	Inprimaketako eta arte grafikoetako beste jarduera batzuk.
9001	Arte eszenikoak.
5914	Zinema-emanaldietako jarduerak.
1393	Alfonbrak eta moketak fabrikatzea.
8219	Fotokopiak egitea, dokumentuak prestatzea eta bulegoko beste jarduera espezializatu batzuk.
9321	Jolas-parkeetako eta parke tematikoetako jarduerak.



EJSN-09 ID	EJSN-09 4 DIGITU
2431	Hotzeko tenkaketa.
5223	Aireko garraioarekin lotutako jarduerak.
3212	Bitxiak eta antzeko artikuluak fabrikatzea.
5590	Beste ostatu batzuk.
5010	Bidaiarien itsasoko garraioa.
7711	Automobilak eta ibilgailu motordun arinak alokatzea.
4932	Taxi-garraioa.
2670	Optikako instrumentuak eta argazkigintzako tresnak fabrikatzea.
9601	Ehunezko eta larruzko jantziak ikuzi eta garbitzea.
9329	Olgetarako eta denbora-pasako beste jarduera batzuk.